*Hassan Hamdoun, arrazakeria Euskal Herrian*

# ARRASATE PRESS

1992ko urriak 30

168. zenb.



Etorkizuna:
**Gure bailara turismorako bidetan?**

**Josu Herrarte**

# Bosniarren laguna

# Zatoz eta ikusiko duzu.




Argazki: Sony CVP - G 700 bideo-inprimagailuarekin telebistatik zuzenean inprimaturiko imagina.

Donostian
urriaren 27tik azaroaren 1era

SONY
BANATZAILE OFIZIALA
1992

*Jose Aranzabal*

Zatoz **SONYMAGIC**-era eta ikusentzutezkoen ikuskizun bikain batetan azken berrikuntzak gozatu ahal izango dituzu.

*Jose Aranzabal*

# EROSI SONY BAT ETA ERAMAN BI.

Zatoz **SONYMAGIC**-erako
gonbidapenak jasotzera!

Jose Aranzabal.
Iturriotz, 15 Tfnoa: 79 15 16 ARRASATE

MUSAKOLA OSTATUA
Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak
Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

• Txitxinpe •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

LORATEGI
taberna
Iturriotz, 7
Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

Memesa
79 42 22

# Urriaren 22ko 'Rifi-Rafe' programa

Bi talde ikusten ziren platoan: heriotza anuntziatua zutenena eta abisu honetatik libro zeudenena. Gaia aski erakargarria zen, badakizu, edonori, niri, zuri,... gerta dakiokeen gauza da, bai edonori eta edozein momentutan etor dakiokeena. Hauxe zen pantailaren aurrean jarraitzeko orduan nuen arrazoirik garbiena, baina aitortu behar banituela bertan jarraitzeko beste arrazoi batzuk ere: gai honek, berarekin, daraman morboa, honelako egoeran dauden pertsonak ezagutzeko kuriositatea, euren sentimenduak ezagutzearen jakinmina, euren barnean sartzeko tentazioa. Honela, bada, pertsona banakako lekukotasuna entzun nuen saioaren hasieran. Saioa aurrera zihoan heinean geroz eta jende gehiagok hartzen zuen parte, solaskideen taldea zabaldu egin zen. Iritziak geroz eta bariatuagoak ziren: batzuk heriotzera eramaten duen gaisotasun larriaren aurrean gaisoak egia osoa jakiteko eskubidea duela zioten, beste batzuk, aldiz, egia isiltzearen aldeko agertu ziren. Dilema zaila, kasuan kasuan biak errespetagarriak, jakina, esango luke edonork.

Erabaki zaila batzurentzat, oso erraza beste askorentzat, eta esperimentatu gabea gainerakoentzat.

Pentsamenduak eta sentimenduak jira-biraka neuzkan.

Konturatu gabe gorputzeko giharreak gogortu egin zitzaizkidan, aldi berean bihotza samurtu, malko batzuk ere isuri nituen. Egia esan, platoan zeuden hiru protagonistek, Jon Salaberri arrasatearra barne, oso goian jarri digute listoia, goian benetan, goreneko heldutasun maila erakutsi digute: bai bizitzaren aurrean eta bai heriotzaren aurrean ere.

Gu egoera horretan inoiz aurkitu izango bagara, jakingo ote dugu eurak lortu duten heldutasun maila eskuratzen? Ez dakigu! Baina pertsona hauei esker, horrela erakutsi digutelako, jakin badakigu posible dela, eta hau ez da gutxi!

**Matilde Sainz Osinaga**



Haritz

• ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Arantzazu Loidi. **Kazetariak**: Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea**: Kepa Oliden (77 06 90). **Administrazioa**: Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa**: Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua**: Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak**: Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna**: Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada**: 6.300. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

*Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du*

Ford
AMETS TAILERRAK
HERGO karabanen banatzailea
ZUEN KARABANAK ATERPEAN GORDETZEN DITUGU

Berezano auzoa. OÑATI
Tfnoa: 78 25 92 / 78 19 50

IRATI
TABERNA
Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

Unidad Servicio Recuperación
Alkoholarekin arazoak dauzkazu?
Agian, Alkoholiko Anonimoek lagundu ahal dizute!!
Alkoholiko Anonimoak
3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

• • • •

## Lotsagarria

Gutun hau Fosforos taldekook idazten dugu. Idaztera bultzatu gaituena zera da: urriak 17 larunbata arratsaldeko hiruretan partidua genuen Iturripen eta jokatzera joan ginen.

Partidua ez zen beste munduko gauzarik izan, edozein partidutan gertatzen diren ostikadak egon ziren soilik.

Bi minutu falta zirenean, beste taldeko batek ostikada bat eman zion gutariko bati eta “jodete” esan gainera, honek buelta eman eta paparretik heldu zion, hau dela eta, ikusleak kanpora irten ziren eta bultzakada batzuk egon ziren (eta ez ukabilkadak organizatzaileek dioten bezala).

Partidua hor bukatu zen eta anekdota txar bat izan zitekeena, guztiz dramatizatutako gauza izan da.

Asteleheneko batzarrean partidua komentatu zutela eta enteratuko ginela esan ziguten.

Astearte goizean gure sorpresarako, kaleratuak izan ginela jakin genuen.

Lotsagarria iruditzen zaigu horrelako “tontakeria” batengatik taldea kaleratzea inolako abisurik gabe.

Lotsagarria iruditzen zaigu, ATBtik enteratzea eta ez organizatzaileengandik.

Azkenik esan partidua erraz irabazten gindoazela (11 - 3) eta ez zela partidu borrokatua izan.

**Fosforos**

• • • •

## Maitasun eta ulerkortasunaren eliza?

Oraindik ez gara geure onera etorri Vaticanoko Eliza Katolikoaren Katezismo berriari? darion intolerantzia eta ankilosamendu ikasgaitik eta berriz ere erasoan datoz.

Elizak, orain arte, ezer gutxi egin du HIESaren arazoaren inguruan, horrekin bizi direnak anatemizatzeaz gain (salbuespen ohoretsuak albora utzita, horietakoak ere badaude eta). Eta orain, seropositiboei ezkontzako eskubidea ukatu egin behar zaiela esanaz datozkigu ( 16-10-92an D.V.an, 22. orrialdean argitaratutako albistea) Euren argumentuak? Klasifika ezinak eta koherentziarik gabeak.

Horren aurrean, Bizkaiko T-4 Kolektiboek, Bermeoko Txo HIESA, Guaien Taldea eta Deba Garaiko HIES Ekimenak argi utzi nahi dugu ondorengoa:

1.- Vaticanoko Eliza Katolikoa gure bizitzetan, gure askatasunean eta bizitza duhin batetarako dugun eskubidean irrazionalki sartu dela eta dugun **haserrea**.

2.- **Harrituta** gaude, Kristoren mezua maitasun eta ulerkortasunekoa zela uste baikenuen; sufritzen dagoenari laguntzearen aldekoa.

3.- Gure ustez, ezkontzak, edo bikotean bizi izateak ez du birprodukzioko funtzioa bakarrik, eta Sexualitatea koitoa baino askoz ere gehiago da.

4.- Ezin da (ez dugu onartuko) seropositiboa bakardadera kondenatzerik eta hare gutxiago errudunt-zat jotzerik heriotz irudi faltsu bihurtuz.

5.- Mende bat baino gehiago da V.I.H.aren transmisio posiblearentzako konponbidea ezagutzen dela: **preserbagailuaren erabilpena**.

Ezin dugu onartu Vaticanoko Elizak, bere hutsezintasun eta inspirazio jainkotiarraren tronu horretatik, giza duintasunaren aurkako krimen izugarri hauek burutzen jarraitzerik.

Gure munduak maitasuna eta konprensioa behar ditu, ez intolerantzia.

**Deba Garaiko HIES Ekimena**
(Erredalzioan itzulia)

### Zuzenketa

Joan den asteko Fotozaharrean Barrena txirrindularia 1951n hil zela esaten genuen. Informazio hori ez da zuzena, 53an zen eta.

Onduline
TXOMIN HERIZ
URALITA
eraikuntzarako materialak
Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3
ARRASATE

# Zer iruditzen zaizu tabernen ordutegia?



**Erruke Alonso**
**Bastidako irakaslea**
**(24 urte)**

Astean zehar ondo dago orain jarri duten ordutegia baina astebukaeretan pixka bat beranduago itxiko nituzke. Larunbatetan 4ak arte zabalik utziko nituzke.



**Aitor Zabaleta**
**Langabetua**
**(21 urte)**

Gaizki, goiz ixten dituzte taberna gehienak. Nik 4ak arte edo utziko nituzke zabalik.



**Amalia Espejo**
**Ispilu tabernako langilea (30 urte)**

Taberna baten nabil lanean eta giroa berotzen hasten den momentuan itxi egin behar dugu. Arrasaten asteburuetan irabazi dezakegu zerbait eta ixtera behartzen bagaituzte...



**Martin Arana**
**Dendaria**
**(60 urte)**

Egun guztia utziko nituzke zabalik. Ez nituzke itxiko. Horrez gain, bakoitzak ikusiko du zer egin bere negozioarekin baina nik ez nituzke itxi ere egingo.



**Marisol Bermejo**
**Etxekoandrea**
**(30 urte)**

Astebukaeretan pixkat bat beranduago itxiko nituzke. Astean zehar 2.30etan ixtea ondo dago.



**Simon**
**Jubilatua**
**(74 urte)**

Gau eta egun zabalik utziko nituzke. Deskantsatzeko ordu pare bat itxi, baina bestela zabalik utziko nituzke.



**Txomin Erostarbe**
**Eusko Jaurlaritzako langilea**
**(30 urte)**

Giroak esan behar du noiz itxi. Bestalde, bizilagunak kexatzen diren kasuetan lokala hobeto prestatzea ere ez legoke txarto egongo.



**Begoña Garcia**
**Langabetua**
**(34 urte)**

Jende askorentzat ordu ona da baina beste batzuk beranduago arte geratu nahi badugu... ondo legoke beste toki bat izatea.

OSORIK
PUB
Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

ARAMAIO
okindegia
Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

Kabia altzariak
Gipuzkoako Etorbidea, 28
ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. ..... 79 53 00
Igualatorioa ..... 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ..... 79 39 00
(emakumeak) ..... 79 44 11
Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutze gorria**
Bergara ..... 76 55 76

**DYA**
Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57
(Txanda hartzeko) ..... 77 03 46
77 07 21
Oñati ..... 78 08 52
Eskoriatza ..... 79 98 58
Aretxabaleta ..... 79 74 58
Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak ..... 45 87 44

**Udaltzaingoa**
Oñati ..... 78 04 11
Bergara ..... 76 14 69
Arrasate ..... 79 14 39
Aretxabaleta ..... 79 10 52
Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**
Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea ..... 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile
burua ..... 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..... 78 28 00

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) ..... 79 05 81
Gasa ..... 900 40 05 23
79 78 44
79 76 78

**Garraioak**
Taxiak ..... 79 12 22
P.E.S.A. ..... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza ..... 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
Erabiltzaileen Elkartea ..... 79 87 77
KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterrongo liburutegia**
Monterron ..... 77 01 05

## GOARDIAKO FARMAZIAK

**Ostirala 31**
Egunez: S. Español. Iturriotz.
**Larunbata 1**
Egunez: M. Corcuera. Musakola.
Gauez: Estella. Matxiategi.
**Igandea 2**
Egunez: J.A. Irizar. Erguin.
Gauez: Mozos. Pedro Deunaren.
**Astelehena 3**
Egunez: Amezua. Santa Marina.
Gauez: Camacho. Oxirondo.
**Asteartea 4**
Egunez: Aurora Ruiz. Maala.
Gauez: Puy. Barrenkale.
**Asteazkena 5**
Egunez: A.M. Morales. San Andres.
Gauez: Guallar. San Antonio.
**Osteguna 6**
Egunez: S. Español. Iturriotz.
Gauez: Estella. Matxiategi.

## 30 OSTIRALA

**ZINEA**
"La villa de los viernes" (7,10)

**BLUES KONTZERTUA**
"Blues Stop" taldearen kontzertua. Elorrioko Arriola Kultur Etxean. Gaueko 11etan.

**ROCK KONTZERTUA**
La Duda taldearen kontzertua. Bergarako Gaztetxean. Gaueko 11etan.

### LARUNBAT-ERO EKINTZAREN HASIERA

Bihar larunbata AEDko Larunbat-ero ekintzari emango zaio hasiera, haurren Ekintzetaz arduratzen den Txatxilipurdi taldearen zuzendaritzapean. Lehen mailatik seigarren mailararte zabaldu da matrikula; adin bakoitzak bere berezitasunak izango ditu, guztira 380 ume izango direlarik. Etortzen diren haurrei kulturaz eta hizkuntzaz euskalduna izango den giroa eskeintzea da helburua. Talde profesionala arituko da: arduradun bat, hiru koordinatzaile eta 25 begirale. Bihartik, San Frantzisko Xabier eta San Viator ikastoletako gelak izango dira maiatzerarte iraungo duten ekintzetan topagune. Ordutegia, goizean 10etatik 13etara eta arratsaldean 3etatik 6etara.

## 31 LARUNBATA

**ZINEA**
"Aquel país desconocido" (Eguerdiko 12etan)
"Sin perdón" (5,7.30,10)

**JUBILATUEN JAIA**
Aramaion jubilatuen jaia. Nekazari produktuen lehiaketa. Goizeko 10etan hasiko da.

**LARUNBAT-ERO**
AEDko larunbat-ero ekintzen hasiera. Goizeko 10etan eta arratsaldeko 3etan.

**ABESBATZAREN EMANALDIA**
Errenteriako Landarbaso abesbatza. Bergarako Santa Marina Parrokian. Arratsaldeko 8etan. Sarrera dohainik.

**KUBAKO ABESBATZAREN KONTZERTUA**
San Frantzisko Parrokian, "Exaudi" Kubako Abesbatzaren emanaldia. Arratsaldeko 8etan.

**BERTSO AFARIA**
Bertso afaria Eskoriatzan. Jon Sarasua eta Anjel Mari Peñagarikano. 8.30etan.

### EXAUDI ABESBATZA ARRASATEN

Bihar larunbata arratsaldeko 8etan Cubako Exaudi abesbatzak kontzertu bat eskainiko du San Frantzisko parrokian. Tolosako abesbatzen topaketetan parte hartzeko etorri dira Euskadira. Arrasaten eskainiko duten emanaldian Cubako folkloreko abestiak kantatuko dituzte. 12 emakume eta 8 gizonek osatzen dute abesbatza.

## 1 IGANDEA

**ZINEA**
"Sin perdón" (5,7.30,10)
"Aquel país desconocido" (Eguerdiko 12etan)

### BERTSO AFARIA ESKORIATZAN

**Bihar larunbata gaueko 8.30etan bertso afaria izango da Eskoriatzan. Ekitaldia Udaleko Euskara Batzordeak eta Axtroki euskararen aldeko elkarteak antolatzen dute eta bertan Anjel Mari Peñagarikano eta Jon Sarasua izango dira bertsolari gonbidatuak. Bertara joan nahi dutenek Eskoriatzako Mirentxu, Irrintzi eta Toki Alai tabernetan eman dezakete izena.**


AMAIA

## 2 ASTELEHENA

**ZINEA**
"Sin perdón" (7,9.30)

**MAKRAME IKASTAROA**
Makrame ikastaroaren hasiera. Aretxabaletako Kultur Etxeko eskulanetako gelan. Prezioa: 2.000 eta gazte txartelarekin 1.000.



### FRUITU ETA BARAZKI ERAKUSKETA ARAMAION

Bihar larunbata goizeko 10etan hasiko dira Aramaion Jubilatuen eguneko ospakizunák. Ordu horretan Kiroldegian frutu eta barazkien agerpena hasiko da. 11.30etan meza izan ondoren, 12.45etan nekazal produktuen lehiaketaren sari banaketa izango da. Bertan zazpi sail desberdin bereiztuko dira: esne lurra, hegaztiak, perretxikoak, fruituak, barazkiak, antzinako tresnak eta esku lanak; eta bakoitzean bost sari banatuko dira. Bazkaldu aurretik, eguerdiko 1.15etan Egaña eta Sarasuarekin bertso saioa izango da eta ondoren, 2ak aldera anai arteko bazkaria trikitilari eta bertsolariekin.

## 3 ASTEARTEA

**ZINEA**
"Sin perdón" (7,9.30)

**ARGAZKI IKASTAROA**
Argazki ikastaroaren hasiera. Aretxabaletako Kultur Etxeko eskulanetako gelan. Prezioa: 2.000 eta gazte txartelarekin 1.000.

**ETXE APAINKETA IKASTAROA**
Etxea apaintzeko ikastaroa. Irakaslea: Xabier Arregi. 3.30etan AEDko lokalean. EKIN emakume taldeak antolatuta.

### BERGARAKO EUSKARARI BURUZKO IKASTAROA

Datorren azaroaren 11an Bergarako euskarari buruzko ikastaroa hasiko da UNEDen. Matrikula epea azaroaren 7an bukatuko da eta 7.000 pezeta ordaindu beharko dira. Irakaslea Juan Martin Elexpuru izango da eta jorratuko diren gaiak aditza, hizketa, lexikoa, idatz ariketak... izango dira.

## 4 ASTEAZKENA

## 5 OSTEGUNA

**ZINEA**
"Instinto básico" (7,9.30)

### SUKALDARITZA ETA GOXOGINTZA IKASTAROA

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan sukaldaritza eta goxogintza ikastaroa hasi zen pasa den asteazkenean. Hala ere oraindik badaude plaza batzuk hutsik eta hori dela eta, interesatuok bertara zuzendu edo 79 04 59 telefonora dei egin dezakezue. Maite Altuna izango da irakaslea eta 24 orduko ikastaroa da, astean bi ordu. Horrez gain, "Ikasten erakutsi" izeneko ikastaroa ere hurrengoko egunetan jarriko da martxan. Pablo Gutierrez izango da irakaslea eta zaszpi saiotan banatuko dira 12 ordutako klaseak. Plazak mugatuak dira eta izena emateko epea zabalik dago. Guraso eta irakasle guztiei zuzentzen zaie ikastaroa. Azaroaren 10ean hasiko da.



### MAKRAME ETA ARGAZKI IKASTAROAK ARETXABALETAN

**Aretxabaletako Udal Batzordeak makrame eta argazki ikastaroak antolatu ditu. Azaroaren lehen astean hasiko dira eta abenduan bukatu. Irakasleak, Blanka Perea makramen eta Roberto Vazquez argazkilaritzan; 30 orduko ikastaroak izango dira, astero 4 eta 6 orduko klaseak izango direlarik. Ikastaroaren prezioa 2.000 pezetakoa da eta gazte txartelarekin 1.000. Argazki ikastaroan behar beharrezkoa da argazki makina manuala ekartzea.**



"Zuen guztion eguneroko lanarekin, gazteon eta ez hain gazteon eguneroko lanarekin Euskal Herriaren askatasuna lortuko dugu, eta horren ondorioz, euskal bahitu politiko guztien askatasuna ere etorriko da, eta baita exiliatuen etxeratzea ere (…) Nire zorionak Felix, Alberto eta Jose Ramon eroiei, naparrekin eta azpeitiarrarekin batera berriz ere Euskal Herriaren izena munduaren gailurrean jartzea lortu dute eta. Laster lortuko dugu, denon lanarekin, beste herri libre eta burujabe batzuen mailan jartzea ere. Animo, irabaztera kondenaturik gaude eta".

**Kepa Urra**. 1992-10-23.

egin

"1992. urte majikoari parafernaliazko geruza jausi zaio, bapatean, eta gure begi nekatuen aurrean, aspaldi iragarri genuen panorama beltza agertu da. Hauxe dugu, antza, iragarle ezezkorrak izateagatik egokitu zaigun saria. (…) Eta horrela, aginteak eskainitako ikuspegi hutsgabetik, 'gaizki gertatuta' omen dauden enpresariak Mexiko zein Txilen inbertsioak egitera animatuko dituzte. Aurkeztezinak dira".

**Josemari Velez de Mendizabal**. 1992-10-21

Egunkaria

"Oso fuertea da heriotzera eramango zaituen gaixotasun bat izan eta gainera horregatik lotsa sentitzea. Oso fuertea da, izugarri injustua."

**Jon Salaberri**. 1992-10-22. ETB

Rifi-Rafe

## Zertarako antolatu duzue komiki erakusketa?



**Josu Aranguren**
*Galtzagorri* taldeko partaidea

Eh! zer moduz? Jakin nuen kuadrilakoak elkartu zinetela, sentitu nuen ezin joana. Ondo pasa zenuten?… Ah! sentitzen dut… baina niretzat ez da pozgarria lagunek ongi pasatzeko, edo ongi pasatzen ari direla uste izateko, drogatu beharra dutelako jakitea. Badakit gazte askok egiten dutela, baina horrek ez du esan nahi egin beharra dagoenik… Zuen buruaren jabe zeratenez, zuek erabakiko duzuela zer egin berarekin? Ongi, baina zergatik ez duzue norberarentzat zerbait betegarriagoa egiten?… Egia da, gizarte honek ez digu gauza handirik eskaintzen astialdirako, baina ez dut uste ematen digutenari itxaron behar diogunik, are gutxiago ematen ez digutenagatik negarrez. Zerbait egin nahi badugu, egin dezagun inori itxaron barik. Herrian bertan, badaude gazteekin lanean ari diren gazte taldeak. Oraintxe atera dute komiki erakusketa bat, guztiontzat zabalik dagoena. Agian, parte hartuko bazenu, denbora betetzeaz eta ongi pasatzeaz gain, arazo honi buruz pentsatzen lagunduko lizuke… Ez dago "Picasso" izan beharrik parte hartzeko. Gehiago jakin nahi baduzu, gazte taldeetara zuzendu zaitezke, uste duzuna baino interesgarriagoa izan daiteke eta bururatu ez zaizkizun zenbait gauza ikasi ere bai… Tira, bai, niri ere berandutzen ari zait… Taldeak? komiki erakusketako arauak azaltzen dituen paper berean agertzen dira… Bueno, bai, hurrengo batean denbora gehiagorekin … Agur!

LASAGABASTER
LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.
Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

### Emakumea eta enplegua ikastaroa

Astelehenean Santamainako Famili eta Gizarte heziketarako zentruan, “Emakumea eta enplegubilaketa” ikastaroa zen. Kurtsoak 300 ordutako iraupena izango du eta hauteketa egin ondoren, Arrasate, Bergara, Antzuola eta Oñatiko 18 emakumez osatutako taldeak eman zion hasiera ikasturteari.

### Iraileko Gurutze Gorriaren Zerbitzuak

Irailean Deba Garaiko Gurutze Gorriak, premiazko 44 zerbitzu egin behar izan zituen. Istripuei dagokienez, lan-istripuak aipagarri, hiru Arrasaten, errepideko istripuak berriz, 23, beti bezala gehien Bergaran. Guztira anbulantziak 81 pertsona eraman behar izan zituen, horietatik 3 hil egin ziren, 15 larri zauritu eta 63 zauri larri barik.

### KASek antolatutako manifestaldia ostiralean

Berrehun pertsona inguru bildu zituen joan den ostiralean KASek manifestaldirako egindako deialdiak. Manifestaldia “indultoa”ren hamabostgarren urteurrena zela eta antolatu zen.



## Udal-zerga askoren igoera onartu zen ostiraleko plenoan

Ur eta zaborraren kontua, obren-kontenedoreak jartzeko tarifak, lurperaketa-tasak eta kiroldegiko tarifen igoerak onartzea. Asteburuetan 2.30etan eta astean zehar ordu bat lehenago tabernak ixteaz Udaltzaingoa arduratzea eta ez Ertzantza. Uribarriko tabernaren uztiakuntza Iñaki Aranari ematea. Uharkapeko lanen eraginez Azatzan sor daitezkeen kalteei aurre egin ahal izateko 250 milioitako abalari oneritzia ematea, Azatzako auzokideekin sortutako arazoa konponduz. Aipatutakoak izan ziren joan den ostiraleko Udal Plenoan hartutako erabaki garrantzitsuenetarikoak, baina akaso deigarriena Aldibereko Itzulpen Sistema martxan jartzea izan zen; arazo barik funtzionatu zuen sistema berriak.

### Laguntzak San Andres eraberritzeko

Jose Antonio Maturana, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza kontseilariak pasa den ostegunean San Andres auzora egindako bisitan adierazi zuenez, auzo horretako biztanleek laguntza handiak izango dituzte etxebizitzak eraberritzeko. Laguntza horiek bi bidetatik iritsiko zaizkie San Andresekoie: subentzio moduan edo interes gutxiko kredituen bidez. Dirudienez, 750 etxebizitza eraberritzeko asmoa dago, etxebizitza bakoitza konpontzeko 2.000.000 PTA inguru. Gehienbat, leihoak aldatu, etxaurreak txukundu edo eta igogailuak jartzea izango lirateke eginbehar nagusiak.

### Kultur-taldeentzat lokalak

Udalak Otalora kalean duen eraikuntzako lehen solairuan utziko dizkiete lokalak Gaitero, Trikitixa Eskola, Arrasate Musikaleko Akordeoi Orkesta, Lore Gazteak, Txikitxu, Arrostaitz eta txistulari taldeei. Horretarako eraikuntza egokitu egin beharko da eta badirudi egokitze-lanak amaituta egon daitezkeela azaroaren erdialderako.

Bestalde, eraikuntza bereko behe-solairua ARKOri utziko zaio, baina aurrez INEMa Nafarroa Etorbidera eramango da.

### Denetarik Aste Internazionalistaren barruan

*Ekekei* antzerki-taldearen “Ni naiz Kapitan Piloto” obraren antzezpenak eman zien amaiera Komite Internazionalistek antolatutako Aste Internazionalistako ekintzei. *Ekekei*ren lana, euriaren eraginez, plazan beharrean arkupetan antzeztu zen eta eguraldiaren baldintzak kontuan hartuta, ikusle ugari bildu zituela esan daiteke.

**JAIOTZAK**

- Ane Ormaetxea Mugerza. Urriaren 21ean.
- Jon Ander Arrizabalaga Hervaz. 23an.
- Maialen Fernandez Vita. 23an. Leire Arregi Vicente. 26an.

**HILDAKOAK**

- Jose Maria Etxebarria Larrañaga. Urriaren 18an. 81 urte.
- Marina Gisasola Bilbao. 22an. 83 urte.
- Leonarda Agirre Telleria. 23an. 70 urte.
- Antonio Irureta Gurrutxaga. 25ean. 90 urte.
- Gregorio Armendia Berrio. 26an. 82 urte.

**EZKONTZAK**

- Jose Etxabe Sagasta & Irune Urbina Belastegi. Urriaren 24ean. Elizaz.

TXOKO
TABERNA
Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak
Otalora Lizentziatua z/g Tfnoa: 79 20 10

EsLu
ileapaindegia
Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



Jose Miguel Vega *

# Beste drogak

**Denok**, edo ia denok dakigu heroinaren kontsumoa jeitsi egin dela, rehabilitazioan ari diren pertsonengatik, rehabilitatu direnak medio, heroinaren kontsumoak ekarri dituen ondorioen beldur, HIESa, gartzela, marginazioa …

Jakinekoa da, bestalde, edo jakintzat ematen da, beste droga batzuk, kokaina, speed eta alkohola bezalakoak, gora doazela. Ez naiz droga gehiegi kontsumitzeak pertsonari ekartzen dizkion kalteetaz ari, izan ere, drogak hor daude eta ez dira ez onak ez txarrak, benetan negatiboa dena horiek gehiegi erabiltzea da eta, gauza guztiak bezala, eta norberak izan behar luke konsziente zergatik eta zertarako kontsumitzen dituen; baina droga mota horri buruz informazio gehiegirik ere ez ote dugun iruditzen zait, edo garrantzia kentzen zaiola gutxienez.

Gizartea, drogari buruz hitzegiten denean beti heroinaz ari da jendea HIES, gartzela eta marginazioa bezalako ondorioengatik.

*"Drogak hor daude eta ez dira ez onak ez txarrak, benetan negatiboa dena horiek gehiegi erabiltzea da"*

Gizarteak marginatu egin izan ditu eta egiten ditu pertsona horiek, ondorio berberak izango dituzten drogak ere badaudenean, baina oraindik ondorioak iritsi ez direnez, **ez da ezer gertatzen.**

Kontutan izan behar da heroinaren kontsumoa langileen gizarte klasean sartu zela, eta beste droga batzuk, kokaina adibidez, gizartearen mailarik altuenetatik sartu dela eta hori media, onartuago dela. Edozein modutan ere, ez dago heroina kontsumitzaleekin bezala gertatu beharrik, euren baitan dago marginazioa eta droga gehiegi kontsumitzen duen pertsonak berez marginatzen du bere burua.

(*) Lizarra Elkarteko monitorea

## USTEAK USTE

**18 egun oinez egin ondoren, AHV-ko langileak Madrilera heldu dira, baita Industria Ministrariarekin bildu ere.**

**Badirudi lehen bilera honetatik ezer lortu gabe atera direla, badirudi bestalde, ez dagoela Ministeritzaren aldetik ezer funtsezkorik negoziatzeko asmorik, nahiz eta astean bertan beste bilera bat egitekotan izan.**

**Eta egoera horrela, betiko moduan, politikariok elkarri errua botatzen hasi dira adierazpen publikoak eginez, eta ez edonolakoak. Batzuk autodeterminazioa aplikatzea esijituko dutela, besteok zerbait lortu nahi izanez gero Euskal Herriak ere Españako Gobernuari zerbait eman beharko diola… Ez dakit nik urduritasunak eraginda, edo euren arteko mezuak diren, izkutuko klaberen bat gordetzen duten horietakoak. Berez, ez dirudi jendearengan eragin handirik izan dutenik adierazpen hauek. Baina utzi ditzagun politikariok politikakeriak egiten.**

**Duela aste gutxi batzu, nekazaritza sektorearen alde idatzi banuen sektore guztiak beharrezko direla aipatuz, gaurko honetan industriaren alde egin beharrean nago. Eta izan ere, apur bat aztertzen badugu, biek ere kanposantuko bidean dirudite, eta ez dezagun ahaztu gure hizkuntza ere bide horretara eramateko ahalegin guztiak egiten ari direla. Zer utzi nahi digute adierazpen publikoez gain?**

Amaia Jauregi-Arraburu

Lore lurrindegia
Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

URONDO elektrizitatea
* Elektrogaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Argiztapena
* Bobinaketak
* Proiektuak
Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76 ARRASATE

# Musakola, baserritarrik gabeko baserri-auzoa



Berrogeitamar biztanle bizi dira Musakolako hamabost baserrietan.

**Zaborraren** bilketa zerbitzua dute arazorik larriena Musakola baserri-auzoko auzokideek, Fermin Aginagalde auzo-alkateak zioenez. "Zaborra biltzeko toki finkorik ez dago. Lehen ahal zena erre eta gainontzekoa Takolora eramaten genuen, baina orain zabor-poltsak hartu eta kalera eraman behar izaten ditugu; errekara botatzen dituenik ere badago. Dirudienez, zaborra biltzeko tokia jartzeko asmoa egon badago; nire ustez, errepidean jarri beharko lukete, gertu dago eta".

Zaborraz gain, zerbitzuen aldetik auzoa nahiko ondo dagoela aitortzen zuen auzo-alkateak. "Ura Urkulutik iristen zaigu, eta egunen batean arazoak izanez gero, deposito zaharrak dauzkagu baserri guztietan; korreoa, berriz, Zigarrolako Jubilatu Etxean dauden kutxetan jasotzen dugu eta bilerak ere han egiten ditugu, lokalik ez dugu baina konforme gaude bilerak Jubilatuen Etxean egitearekin. Beharbada, kasu berezia izan daiteke Musakola, herriko musika-taldeek entsaiatzeko lokala bertan daukagu eta. Egia esan, gazteek ez dute arazorik sortzen, zikinkeria apur bat eta kotxeak gaizki aparkatu dituztelako pasatu ezina sortzen da batzutan, baina orokorrean ondo portatzen dira".

### Baserritarrik ez Musakolan

Baserrian bizi bai, baina baserritik bizi denik ez dago Musakolan. "Baserritar baserritarrak jubilatuta daude" zioen Fermin Aginagaldek. Musakola baserri-auzoan hamabost baserri daude, horietatik etxebizitza bikoitzekoak bi eta utzirik dagoen bat; biztanleak, berriz, berrogeitamarren bat dira gutxi gorabehera. Nahiz eta gehienek zelai zabal eta berdeak izan, hiru baserri bakarrik dira Musakolan ganadua dutenak. Ganadurik ez, baina oiloak, untxiak eta txarriren bat baserri guztietan aurki daitezke. Inguru guztian bezala, pinuak nagusi dira, pagadi batzuk badiren arren.

Jakina denez, San Isidro jaiak ospatzen dituzte Musakolako auzokideek, "baina baserri-auzoan ia ez ziren ospatzen, Zigarrolakoek egitarau-zabala izaten dute baina baserritarrentzat ia ezer ez. Horregatik, iaz lehenengoz, San Isidro egunean, 15ean, baserritarrentzat bazkaria antolatzea lortu genuen".

Jaiak alde batera, iaz egindako Parrokiako teilatuko erretilan protagonismoa hartu zuen Musakola auzoak. Izan ere, San Juan Bautista parrokiako teilatua berriztерakoan, Musakolako teileria zaharrean gerra aurrean egindako teilak agertu ziren, inizial eta guzti.

MENDI taberna
Mendi da zure etxea
Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99



Domusaindu eguna eta bezperan kanposantuko ateak zabalik izango dira egun osoz

# Igandean Aldaiko azken Domusaindu eguna

Igandea Domusaindu eguna denez, jendeak hildakoak bisitatu ditzan, larunbata eta igandean goizeko 8etatik iluntzeko 9ak arte, zabalik izango dira kanposantuko ateak.

Urtarrilaren lehen egunetik orain arte, 130 pertsona hil dira Arrasaten; gutxi gorabehera erdiak gizonezkoak eta beste erdiak emakumezkoak. Lurperatzaileak emandako datuen arabera, hildakoen %8a istripuz hil zen eta gainontzeko %92a bestela. Berez hildakoen artean, minbiziaren eragina izango litzateke aipagarriena, heriotzen %20aren erruduna izan da eta. HIESaren eragina minbiziarenarekin konparatuz gero txikia da, baina lurperatzaileak zioenez, aurten 12-13 pertsona hil ditu HIESak.

"Gauza kuriosoak gertatzen dira heriotzarekin -zioen lurperatzaileak- ratxak daude, gazte bat hiltzen bada, denbora gutxira beste batzuk hilko dira, auzo batean bat hiltzen bada auzo berean atzetik iladan hilko dira beste batzuk".

Kuriositateak alde batera, teorian aurtengoa Aldaiko Kanposantuan egingo den azken Domusaindu eguna izango da, badirudi datorren urterako San Kristobalgoa zabalik egongo dela eta. Lurperatzaileak "nahiko berde" ikusten zuen obra.

### Lehergailua Iberdueron, Roneo parean

Pasa den astelehenean, Ertzantzak Roneo pareko Iberdueroko zentralean jarritako lehergailua indargabetu zuen. Dirudienez, lehergailua gas-bonbona batzuk, pilak eta erloju batek osatzen zuten. Indargabetze lanek iraun zuten bitartean, zirkulazioa desbideratu egin zen eta Kataide industrialdetik pasarazi.

### San Viator Azter Kostaren partaide

San Viatorrek laguntzaile bezala hartuko du parte Azter Kosta proiektuan, Europako kostaldearen egoera ikertzeko proiektuan. Hori dela eta, pasa den ostegunean IEE-ko hirugarren mailako Zientzietako ikasleak, botak eta txamarra hartu eta Deba eta Ondarroako Kostaldea ikertzera joan ziren. San Viator ikastolaren helburuak ikasleek ingurugiroaren aldeko ikerketa proiektuan parte hartzea, metodo zientifikoa praktikan lantzea, kostaldea ezagutzea eta ingurugiro heziketa bultzatzea dira.

## IKASTAROAK UNEDen

**DIALEKTOLOGIA**

Irakaslea
**Xabier Pardo**

Noiz
**Ostegunetan, 7etatik 9.30etara**
**1992-11-12 / 1993-5-27**

Non
**UNEDen**

Gaiak
- **Dialektologiazko kontzeptuak**
- **Geografia linguistikoa: mapak, isoglosak, euskalkien ezaugarriak, etb.**

Matrikula epea
**Urriaren 19tik azaroaren 7ra**

Matrikula tasak
**10.000 PTA**

**BERGARAKO EUSKARA**

Irakaslea
**Juan Martin Elexpuru**

Noiz
**Asteazken-ostegunak, 7etatik 9.30etara**
**1992-11-12 / 1993-5-27**

Non
**UNEDen**

Gaiak
**• Aditza • Hiketa**
**• Lexikoa • Idatz-ariketak, etb.**

Matrikula epea
**Urriaren 19tik azaroaren 7ra**

Matrikula tasak
**8.000 PTA**



UXARTE
Kafetegia, gozotegia
Gauez irekita!!
JO TA KE!!
Bañez doktorea, 12
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65



Herrietako ingurune ederrenak seinalatu egin beharko lituzkete. JABIER

# Mankomunitatea turismoa bultzatu asmoz

**Deba** Garaia turismoari begira erakargarria izan daitekeela eta, Mankomunitateak Gipuzkoako turismoaren garapenerako duen proiektua bideratzeko laguntza eskatuko dio Foru Aldundiari. Izan ere, Mankomunitatearen ustez negozio bisitak eta kooperatiben fenomenoa ezagutzera datorren jende kopurua areagotu egin da, eta gainera bailara turismoarentzat interes-gune garrantzitsua izan daiteke berez . Turismoaren gaia dela eta Mankomunitateak prestatutako txostenaren arabera, turismoa aberastasun sortzaile eta bailarako bizikalitatearen hobetzaile izan daiteke.

### Garapena ziurtatzeko prestatu egin behar

Itxura baten, turismoaren ekarrerak ostalaritzaren hedapena ekarriko luke, zerbitzu-enpresa berriak sortuko lituzke, bertako artisautza eta produktu tipikoen industria indartu egingo luke eta merkatal-sektoreari bultzada garrantzitsua emango lioke.

Dena dela, etor daitezkeen bisitariak behar bezala hartzeko, Deba Garaian gaur egungo egoera ez da bat ere ona: turismo-azpiegiturarik (hotel, kanping...) ez dago, bisitariak bailada eta herriei buruz aurki dezakeen informaziorik ia ez da esistitzen, garraio-sare erakargarririk ez dago, eta biztanleek ere ez dute turismoarekiko aparteko kontzientziarik. Hala eta guztiz ere, potentzialki aukera onak omen ditu Deba Garaiak, herrien eta inguruen edertasuna, gastronomiaren kalitatea, kultura... hemendik kanpo zain dagoen merkatu batentzat interesgune izan daitezke eta.

*Potentzialki, Deba Garaiak turismoa erakartzeko aukera onak omen ditu.*

### Oñatiko esperientzia

Badirudi Oñatin turismoa bultzatzeko egin den ahaleginak eragin handia izan duela Mankomunitateak turismoa bultzatzeko duen egitasmoan. Oñatin, orain bi urte turismobatzordea jarri zen martxan, herriari buruzko plano eta informazio-txostenak banatu ziren, hotela eraiki, turismobulegoa ireki... eta turismoa erakar zezaketen beharrezko neurriak hartu ziren. Bi urte igaro eta gero, balantzea guztiz baikorra da eta azken bi urteotan bisitari askoren topagune izan da Oñati .

Dena dela, Oñatikoa kasu berezia izan daiteke eta benetan bailarak turismoa erakartzeko dituen aukerak behar bezala aztertzeko, Mankomunitateak ikerketa serioa egingo du bost milioi t'erdiko aurrekontuaz. Ikerketak amaituta egon beharko du1993ko abendurako.

## Turismoari begira Derrigorrez egin beharrekoak

Argi dago, beraz turismoa erakarri ahal izateko gauzek dexente aldatu beharko dutela, jendea hartzeko behar bezalako zerbitzuak prestatu beharko dira, eta aurrez bailararen irudia promozionatu. Bi helburu horiek lortzeko, mankomunitateak eginbehar zehatzak ezarriko lituzke:

- Bailaran dauden interesguneak seinalatu: errepideetan, herrien sarreretan, paisaia ikusgarrietarako bideak, industri-guneak...
- Turismo-informazio bulegoak jarri.
- Bailara eta herriei buruzko informaziomaterial gehiago sortu: planoak, interes-guneak, lo egiteko tokiak, ibilaldi turistikoak...
- Azpiegitura (hotel, kanpinak, ibilaldiak...) sortu edo hobetu.
- Herrietako gune historiko eta artistikoak berreskuratu.
- Bisitagune izan daitezkeen tokiak prestatu.
- Bertako artisautza, produktu tipikoak eta ohiturak promozionatu.
- Jendea harremanetarako prestatu.
- Feria, bidai-agentzia eta kanpainen bidez bailara promozionatu.





A zer kalabazak! Baina ez da gauza bera kalabazak jasotzea eta ortuan kalabaza ederrak izatea. Areantzako Boliña baserrian, Gastiasorotarren etxean, 92 kiloko kalabazatzarra daukate. Maria Arenazak erakutsi zigun, pozik erakutsi ere. Eta baratzan oraindik beste zortzi dituzte, hori baino txikixeagoak.




**Etxeetatik zaborpoltsak ondo itxi gabe, eta dendetatik janari hondakinak kajetan. Sardina hauek ere kiratsa ederra botatzen zuten kale izkinan. Sardina kajak ala kontenedoreak behar du tapa?**

"EDERTU"
ileapaindegia

San Andres auzoa
Tfnoa:79 04 28




ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65



**Bolantean Maite Canderas anderea eta kotxea aldiz, *Pronto* aldizkariaren lehiaketa baten bidez tokatu zaiona. Maitek ez du Seat Marbella Kiss modeloko kotxea gidatzeko karnetik eta etxekoek kotxe bana dutela ere esan digu. Hala ere albistea entzutean sospresa handia hartu zuela adierazi digu. Zorionak!**



Pasa den larunbatean, 70eko kintoek festa eguna ospatu zuten. Mezaren ondoren, Hostalean bazkari ederra ere gozatu zuten. Egun polita pasatzeko aukera ederra izan zuten. Ea hurrengoan ere animatzen zareten!

Txutxumutxuak

## IZEN PROPIOAK

● **Olatz Etxabe**k, 27 urteko arrasatearrak, Gizarte Laguntzaile postuan jarraituko du. Postu horretan hiru urte bete ondoren, opos iziora irten zen bere postua. Azterketa eta beste frogak egin ondoren Olatz izan da berriz ere aukeratua.

● **Rosa Ramos Alfaro** izan da Bergarako Justo Garate Arriola lehiaketako irabazlea. Nafarroako egoera demolinguistikoari buruzko aurkeztu duen lanakin irabazi du lehen saria.

● **Iñaki Arana** arrasatearra, Erguingo Jubilatuen tabernako arduradun berria dugu. Aurretik kajoi tabernako langilea izan da.

● **Cesar Martin** arrasatearra da Angel Garcia, Espainako alterofiliako irabazlearen entrenatzaile berria.

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta
Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

SAMEGO
GARBIKETAK
Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39



Izarra dorreak 25 urte bete ditu aste honetan. Pasa den larunbatean 100 lagun inguru ospakizun honetan bildu ziren eta bazkari eder bat ere izan zuten. 20 pisuko Izarra torrearen urtebetetzean, Zorionak!

Ezkontza gehien maiatza eta ekainean izaten direla esaten da baina urtean zehar ere izaten dira ezkontzera animatzen diren beste bikote batzuk. Hona hemen horietariko bi. Alde batetik, Mikel Sagasta eta Nati Garcia, irailaren 5ean ezkondutakoak eta bestalde, Joseba Heriz eta Ana Aguirre, irailaren 12an. Zorionak eta besteok ere animatu!



EPELDE



EPELDE







ZALDIBARREN

*Futbito Txapelketa*



# Zimentua ispilu laban bihurtzen denean

**Zaldibarko Txapelketa hasi zenetik ez du asteburu formalik egin, ordutik larunbata edo igandeko protagonista euria da eta gauza asko baldintzatzen ditu. Jokalariek oreka gorde-ezina, baloia kontrolatzeko zailtasunak, ustekabeko erreboteak, zoru labana... dira joku normala egiteko eragozpen nagusiak. Hala ere, behin izena emanez gero, jokatu beharra dago, ezin da hutsik egin, eta eguraldiak lagundu edo ez, partiduak hasteko ordurako Zaldibar edo Iturripera agertu behar, ispiluaren gainean jokatzeko bada ere.**

ZUK-NAHI
taberna
Goizeko 7etatik aurrera zabalik
PINTXO EDERRAK
Erdiko kale, 18 Tfnoa: 79 65 72

NUEVO
taberna
Bañez Doktorea, 15
Tfnoa: 79 99 88
ARRASATE

ARRIARAN
UMEEN JANTZIAK
Otalora, 29 Tfnoak: 77 05 61
ARRASATE

## a taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald | Alde | Aurk. | Guzt. |
| ARGI IBILI | 4 | 3 | 1 | 0 | 38 | 9 | **7** |
| URMAY B. K. | 4 | 3 | 1 | 0 | 20 | 6 | **7** |
| ARRASATE KIROL. | 4 | 3 | 1 | 0 | 20 | 10 | **7** |
| ZULOAK | 4 | 3 | 1 | 0 | 15 | 8 | **7** |
| AIZPUN BILA | 4 | 3 | 0 | 1 | 19 | 12 | **6** |
| LOS HEREDIA | 4 | 2 | 1 | 1 | 16 | 7 | **5** |
| BETRAYER | 4 | 1 | 3 | 0 | 11 | 8 | **5** |
| KAIXO LENIZ | 4 | 2 | 1 | 1 | 18 | 15 | **5** |
| DANOK LAGUN | 4 | 2 | 1 | 1 | 15 | 13 | **5** |
| BUKANAK | 4 | 2 | 1 | 1 | 13 | 12 | **5** |
| SIBILIUS ROVER | 4 | 2 | 0 | 2 | 14 | 9 | **4** |
| ITT | 4 | 1 | 0 | 3 | 14 | 11 | **2** |
| GARIBAI-5 | 4 | 1 | 0 | 3 | 11 | 17 | **2** |
| DRINK TEAM | 4 | 0 | 2 | 2 | 6 | 12 | **2** |
| WHISKERIA LINDE | 4 | 1 | 0 | 3 | 10 | 23 | **2** |
| RESAKAS | 4 | 0 | 1 | 3 | 8 | 23 | **1** |
| AMOZKIBAR II | 4 | 0 | 0 | 4 | 4 | 32 | **0** |
| DRAFT | 4 | 0 | 0 | 4 | 3 | 28 | **0** |
| GUZTIRA | 72 | 29 | 14 | 29 | 255 | 255 | 72 |

## b taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald | Alde | Aurk. | Guzt. |
| MIKELOS | 4 | 4 | 0 | 0 | 17 | 4 | **8** |
| BIZKORRAK | 4 | 4 | 0 | 0 | 11 | 4 | **8** |
| ZIZTI-ZAZTA | 4 | 3 | 1 | 0 | 28 | 9 | **7** |
| JODO FLORO | 4 | 3 | 1 | 0 | 16 | 9 | **7** |
| FOSFOROS | 4 | 3 | 0 | 1 | 29 | 7 | **6** |
| DIEGO ANTONIO | 4 | 2 | 1 | 1 | 17 | 11 | **5** |
| GATZBAKUAK | 4 | 2 | 1 | 1 | 10 | 16 | **5** |
| KAKAJAURI | 4 | 1 | 2 | 1 | 12 | 10 | **4** |
| LA BANDA | 4 | 2 | 0 | 2 | 16 | 14 | **4** |
| ZULUS | 4 | 2 | 0 | 2 | 19 | 17 | **4** |
| MOTZ | 4 | 2 | 0 | 2 | 15 | 23 | **4** |
| PUBLICOOP | 4 | 1 | 1 | 2 | 8 | 16 | **3** |
| KAJOI TABERNA | 4 | 1 | 0 | 3 | 10 | 19 | **2** |
| ANBOTOSTE | 4 | 1 | 0 | 3 | 8 | 17 | **2** |
| BAYERN PROMESAS | 4 | 0 | 1 | 3 | 9 | 19 | **1** |
| TRONKOTEAK | 4 | 0 | 1 | 3 | 10 | 22 | **1** |
| LAUTHERBRUNNEN | 4 | 0 | 1 | 3 | 7 | 17 | **1** |
| ATERPE KAFETEGIA | 4 | 0 | 0 | 4 | 5 | 13 | **0** |
| GUZTIRA | 72 | 31 | 10 | 31 | 247 | 247 | 72 |

## c taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald | Alde | Aurk. | Guzt. |
| TRIKITRI | 4 | 4 | 0 | 0 | 36 | 5 | **8** |
| NOSKI | 4 | 4 | 0 | 0 | 17 | 5 | **8** |
| ADELAIDA HAIZ. | 4 | 3 | 1 | 0 | 20 | 5 | **7** |
| ADOBE | 4 | 3 | 0 | 1 | 19 | 7 | **6** |
| TXOKO TABERNA | 4 | 3 | 0 | 1 | 16 | 9 | **6** |
| ALPARGATA TURBO | 4 | 2 | 1 | 1 | 19 | 15 | **5** |
| ARRASATE KRIST. | 4 | 2 | 0 | 2 | 16 | 15 | **4** |
| NUEVO TABERNA | 4 | 1 | 2 | 1 | 15 | 15 | **4** |
| LASO ARREGI | 4 | 2 | 0 | 2 | 11 | 12 | **4** |
| GANBELAS . | 4 | 1 | 1 | 2 | 10 | 10 | **3** |
| GURE LEKU | 4 | 1 | 1 | 2 | 20 | 23 | **3** |
| AUF DEM KOFFER | 4 | 1 | 1 | 2 | 12 | 14 | **3** |
| ALLA KUIDAUS | 4 | 1 | 1 | 2 | 10 | 14 | **3** |
| KRISKIBALDA | 4 | 0 | 2 | 2 | 6 | 11 | **2** |
| SEG. ORBITA | 4 | 1 | 0 | 3 | 11 | 28 | **2** |
| ATXANTA KETE... | 4 | 1 | 0 | 3 | 8 | 30 | **2** |
| NABARROS | 4 | 0 | 1 | 3 | 8 | 20 | **1** |
| BALEIKE | 4 | 0 | 1 | 3 | 8 | 24 | **1** |
| GUZTIRA | 72 | 30 | 12 | 30 | 262 | 262 | 72 |

## d taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald | Alde | Aurk. | Guzt. |
| FOTO IMAGEN | 4 | 4 | 0 | 0 | 27 | 8 | **8** |
| SUM. UGARTE | 4 | 3 | 1 | 0 | 31 | 6 | **7** |
| PEPELUS | 4 | 3 | 0 | 1 | 20 | 8 | **6** |
| LEINTZ GARAGAR. | 4 | 3 | 0 | 1 | 14 | 4 | **6** |
| MONTERREY TAB. | 4 | 3 | 0 | 1 | 21 | 10 | **6** |
| KOXKAS | 4 | 2 | 2 | 0 | 13 | 9 | **3** |
| NOTXINGAN FLO. | 4 | 2 | 1 | 1 | 16 | 10 | **5** |
| SOLANOS 7 MARES | 4 | 2 | 0 | 2 | 17 | 15 | **4** |
| LOS DIMY | 4 | 1 | 2 | 1 | 20 | 13 | **4** |
| SOKOAKOAK | 4 | 2 | 0 | 2 | 13 | 12 | **4** |
| POTROAK LORATEGI | 4 | 1 | 2 | 1 | 15 | 18 | **4** |
| UGLYS | 4 | 2 | 0 | 2 | 12 | 15 | **4** |
| ZOTZ | 4 | 2 | 0 | 2 | 14 | 23 | **4** |
| EZKIÑAKO HONTZAK | 4 | 1 | 0 | 3 | 8 | 23 | **2** |
| ARTZANKOS UDAL. | 4 | 0 | 1 | 3 | 12 | 26 | **1** |
| OLEEE! | 4 | 0 | 1 | 3 | 10 | 23 | **1** |
| ILUNA TABERNA | 4 | 0 | 0 | 4 | 9 | 23 | **0** |
| BAYERN DE LENIZ | 4 | 0 | 0 | 4 | 6 | 32 | **0** |
| GUZTIRA | 72 | 31 | 10 | 31 | 278 | 278 | 72 |


JOVI

**PINTURA EKOLOGIKOAK**
**Diferentzia: zure osasuna**

**Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoa. Moketa losetan.**

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

ZARUGALDE
ALBAITARI KLINIKA

Ordutegia:
10-10.30 eta 4.30-8
Larunbatak: 10-1.30

- **Albaitaritza orokorra**
- **Zirujia**
- **Txertaketak**
- **Larrialdiak (24 ordu)**

**Tfnoa: 79 15 31**

Zarugalde, 25
ARRASATE

Zarugalde kalean...
BRANKA
taberna



**Mikelos eta Zulus taldeen arteko partiduak ez zuen historia gehiegi izan, Mikelos taldekoak erraz saman nagusitu baitziren. Dena dela, kantxa bustita dagoenean ez dago fidatzerik eta besteen ahaleginei kasu berezia egin behar zaie, ustekabeko jokaldiak gehiago izaten dira eta.**

## EMAITZAK

### A TALDEA

| | |
|---|---|
| Drink Team 1 | Resakas 1 |
| Zuloak 3 | Los Heredia 2 |
| Bukanak 3 | ITT 2 |
| Betrayer 3 | Whiskeria Linde 0 |
| Aizpun Bila 6 | Garibai-5 1 |
| Arrasate Kirolak 4 | Kaixo Leniz 4 |
| Sibilius Rover 3 | Amozkibar II 1 |
| Draft 0 | Urmay Burger King 3 |
| Danok Lagun 3 | Argi Ibili 9 |

### B TALDEA

| | |
|---|---|
| Mikelos 5 | Zulus 1 |
| Kakajauri 5 | Diego Antonio 5 |
| Publicoop 2 | La Banda 6 |
| Aterpe Kafetegia 2 | Motz 3 |
| Bayern Promesas 1 | Zizti zazta 6 |
| Jodo Floro 2 | Tronkoteak 2 |
| Lautherbrunnen 2 | Gatzbakuak 4 |
| Anbotoste KT 1 | Fosforos 0 |
| Bizkorrak 1 | Kajoi taberna 0 |

### C TALDEA

| | |
|---|---|
| Atxanta ke te... 2 | Gure Leku 12 |
| Alpargata Turbo 0 | Trikiti 9 |
| Laso Arregi 3 | Auf Dem Koffer 2 |
| Ganbelas 3 | Txoko taberna 4 |
| Nabarros 1 | Adelaida 6 |
| Adobe C. F. 5 | Kriskibalda 3 |
| Noski 3 | Arrasate Kristald. 1 |
| Seguros Orbita 5 | Alla kuidaus 1 |
| Nuevo taberna 2 | Baleike 2 |

### D TALDEA

| | |
|---|---|
| Monterrey taberna 3 | Sokoakoak 1 |
| Foto Imagen 6 | Bayern de Leintz 1 |
| Uglys 5 | Solano 7 mares 1 |
| Ezkinako Hontzak 4 | Iluna taberna 3 |
| Oleee! 2 | Zotz 7 |
| Leintz Garagardotegia 0 | Pepelus 2 |
| Artzankos Udal. 2 | Sum. Ugarte 9 |
| Notxingan Florest 1 | Koxkas 3 |
| Los Dimy 4 | Potroak Lorategi 4 |

## BELARRIRA

◆ **Kajoi taberna - Fosforos** auzia jira-biraka dabil oraindik. Fosforos taldearen erreklamazioa jaso ondoren, antolatzaileek disziplina batzordea berriro bilaraztea erabaki dute, bi taldeen argudioak entzun ondoren arazoari behin-betiko amaiera eman nahian. Asteburuko ezagutuko da erabakia.

◆ **Antolatzaileen oharra** talde guztientzat: Garbi izan beharrekoa da, txapelketa hau lagunarte eta adiskidetasunean jokatu beharra dagoela, eta berau aurrera eramaten saiatzen garen taldeak ez daukagula kalean inongo irainik jasan beharrik.

◆ **Asteko partiduak**:

A taldean: Zuloak - Urmay Burger King, Arrasate Kirolak - Argi Ibili.

B taldean: Bizkorrak - Zizti Zazta.

C taldean: Ganbelas - Auf Dem Koffer, derbi ikusgarria.

D taldean: Notxingan Florest - Pepelus.

Trikipublik

Kanpatorpea, 2
Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

• Publizitate kanpainak •
• Diseinu grafikoa •
• Artikulu publizitarioa •
• Zuzeneko publizitatea •
• Bideo produkzioa •

## ASTEBURU HONETAN

**Larunbata 31**

**Zaldibar**
08.45 Bizkorrak / Zizti - Zazta
10.00 Zuloak / Urmay Burger King
11.00 Noski / Txoko taberna
12.00 Notxingan Flores / Pepelus
13.00 Oleee! / Monterrey Taberna
14.00 Trikiti / Gure Leku
15.00 Bayern de Leniz / Sokoakoak
16.00 Seguros Orbita / Kriskibalda

**Iturripe A**
13.00 Drink Team / Aizpun Bila
14.00 Anbotoste K.T. / Tronkoteak
15.00 Leintz Garagardotegia / Lorategi Potroak
16.00 Danok Lagun / Garibai 5
17.00 Mikelos / Bayern Promesas

**Iturripe B**
09.45 Laso Arregi / Arrasate Kristaldegia
11.00 Publicoop / Gatzbakuak
12.00 Uglys / Sum Ind. Ugarte
13.00 Sibilius Rover / Whiskeria Linde
14.00 Aterpe Kafetegia / La Banda
15.00 Atxanta ke te.../ Nabarros
16.00 Artzankos Udalaitz / Iluna taberna
17.00 Bukanak / Amozkibar II

**Igandea 1**

**Zaldibar**
08.45 Draft / Kaixo Leintz
10.00 Ezkiñako Hontzak / Solano 7 mares
11.00 Ganbelas / Auf Dem Koffer
12.00 Arrasate Kirolak / Argi Ibili
13.00 Los Dimy / Zotz

**Iturripe A**
09.45 Betrayer / ITT
11.00 Lautherbrunnen / Motz
12.00 Diego Antonio / Zulus
13.00 Alpargata Turbo / Alla Kuidaus

**Iturripe B**
09.45 Los Heredia / Resakas
11.00 Nuevo taberna / Adelaida Haizea
12.00 Adobe / Baleike
13.00 Foto Imagen / Koxkas

## NON DAGO BALOIA?

1. astea



2. astea



### SARITUA



**IÑAKI GONZALEZ OZAETA, lehen *Non dago baloia?* lehiaketaren irabazlea, beretzat 20.000 PTAko balioa duen kirol-materiala.**

Argazkietan ikus dezakezuenez, lehen argazkiko erantzun zuzena bata zen eta bigarrenekoa berriz, laua. Bi argazkietako erantzuna asmatu duenik ez da izan, beraz zozketa bat asmatutakoen artean egin zen; zozketan irabazle Iñaki Gonzalez. Iñakik, berak eramango du **Arrasate Kirolak dendatik 20.000 PTAko sari-lotea**. Datorren astean, berriz ere, *Non dago baloia?* sariketarako argazki berria, animatu, parte hartu eta hileroko zozketan sartuko zara.

Trikiti S. L.
SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA
Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

# ● *Hassan Hamdoun*

# Etorkinen egoeraren berriemale



**Hassan Hamdoun 28 urteko marrokiarra, Tetuanen jaiotakoa. Gibraltarreko itsasartzea pasatuta, emigrazioaren bidea aukeratu zuen. Errioxan maitasuna aurkitu, ezkondu eta orain Araban bizi da. *SOS Arrazakeria* taldeko partaide da eta Komite Internazionalistak ekarrita, arrazakeriari buruz hitz egin zuen Monterronen.**

**—Zergatik aldegin zenuen Marokkotik?**

— Filologia ingelesa ikasi nuen Marokkon eta lanik ez zegoenez, aldegitea erabaki nuen. Arazorik ez nuela izango ziurtatzeko, doktoretza egitera nentorrenela jarri nuen aitzaki. Logroñora etorri eta 9 hilabetez ingeles-akademia batetan egin nuen lan, legez kanpo. Ezkondu egin nintzen eta orduan lan eta erresidentzia arazoak bukatu egin ziren. Ezkondu ondoren igeltsero lan egin nuen, gero ingeles irakasle... eta orain Legutioko lantegi batean ari naiz lanean. Kontratoaren arabera, langile soila naiz, bainapoliki poliki banoa goraka eta dagoeneko enkargatu karguan jarri naute.

**— Zer da "SOS Arrazakeria" taldea?**

— Orain bi urte t'erdi sortu zen, atzerritarrok hemen ditugun arazoei aurre egiteko helburuaz. Bagoaz gauzak eginaz, atzerritarren aholkularitza juridikoa bermatua daukagu, tramiteak egiteko abokatuak dauzkagu, baina arazoa tramite horiek ezertarako balio ez izatea da. Era guztietako laguntza ematen saiatzen gara; alderdi ekonomikoa da larriena, inoren menpe ez gaudenez, laguntza barik baliabide guztiak geuk jarri behar ditugu. Atzerritarron arazo handiena erresidentzia eta lan baimenik ez izatea da, hortxe dago koxka.

**— Euskaldunok arrazistak gara?**

— Bada, bai. Frantzia eta Alemanian moduko arrazismoa, antolatua, Euskadin ere hasi da agertzen.

Beste maila batean, uste dut Estatu Espainarreko beste edozein tokitan baino hobeto gaudela hemen, jendearen borroka hemen Estatu Espainiarraren aurkakoa da. Borroka Estatu horren kontra den bitartean, atzerritarrok ondo gaude, gutaz ahaztu egiten dira eta.

**— Eta arabiarrak?**

— Bai, gauza bera gertatzen da; orain indarra zuek duzue eta zuek zarete arrazistak, baina baliteke egunen batean zartaginari buelta ematea. Diru kontua da dena, Marbellako jekeekin ez da inor sartzen, baina txiskeroak saltzen dabilenarekin denak.

**— Estretxoa, paterak, Goardia Zibila, jendearen mespretxua... jaioterritik aldegiteak merezi du?**

— Hemen dagoena jakinda ez, baina hemen egon ez direnak, telebistan ikusitakoa aurkituko dutela uste dute, Marokkora itzuli eta lagunei hemen bizimodua zaila dela esaten diedanean, ez didate sinisten eta etortzeko desiatzen daude. Orain, oztopo eta arrisku gehiagoz baina arabiarrak berdin-berdin etorriko dira. Aberats eta pobreen arteko diferentziak konpondu arte arazoak ez du akaberarik.

Marokkotik aldegin nuenean etor nintekeen azken tokia zen Euskadi, jendea kalean pistolaz ibiltzen zela uste nuen eta. Hona etorri nintzela enteratu zirenean, zoraturik nengoen galdetuz deitu zidaten etxetik. Komunikabideek dena manipulatzen dute.

**— Hain txarra da Marokkoko bizimodua?**

— Ez, lan on bat aurkitzea zaila da, baina han ez da inor gosez hiltzen. Aldegin dugun gehienok, hobeto bizitzeko asmoz áldegin dugu, etxe bat edo auto bat erosi, familia mantendu... errealitatea ez dela telebistan ikusten dena konturatu arte, gainera hasierako emigranteen aberats-irudia ez dago apurtzerik.

**— Eta bandeja hartu eta kalean txutxeriak saltzen dituztenen irudirik ez da agertzen?**

— Ez, halakorik ez, komunikabideetan gauza politak bakarrik erakusten dira.

## ● "Hemen dagoena ikusita ez du merezi jaioterritik aldetzea, baina telebistan ikusitakoaren arabera, bai"

# Josu Herrarte: Bosniarren lagun arrasatearra

Arantzazu Loidi

**Josu Herrarte, 27 urte, txikitatik Burgosen bizi den mondragoetarra. Bera intsumisoa da eta mugimendu pazifistak koordinatutako laguntza kanpainan joan da Kroaziako Gasinciko errefuxiatuen kanpamentura, beste lagun batzuekin batera. Bizipen asko, lagun minak eta berriz joateko gogoa ekarri ditu.**

"Hara joan nintzenean gauzak okerrago aurkituko nituela uste nuen. Kroazia oso normalizatuta dago, Zagreven sartu edo Gasteizen sartu, hasieran antzekoa da; gerra Bosniara eraman da, eta Kroazia gehiena gerratik kanpo dago". Josuren ustez hangoa ez da ohizko gera, krudelkeria handikoa baizik. "han geundela, poblazio zibila aurrean babes bezala hartuta eraso egin zutela zabaldu zen, eta ez dakit egia den, baina izan daiteke".

Gerrako gauza orokorretaz han egonda baino gutxiago enteratu dela uste du Josuk, han errefuxiatuen eguneroko bizimodua bizi izan duen arren, informazio asko ez zitzaion eta iristen. "Baina hango gerra telebistan ikusten direnetatik ezberdina da. Posizioak oso finkoak dira eta tiroak alde batetik bestera botatzea da egiten duten guztia, ez da konkista kontua. Gehien



2.000 lagun inguru bizi dira kanping dendetan.

azpimarratuko nukena gorroto handia ikusten dela. Aurretik nahiko ondo konpontzen ziren bi herri dira, baina hurbileko pertsona bat hiltzen dizutenean gorrotoaren espiralean sartzen zara eta han horixe gertatu da". Baina orain bosniako musulmanak ere kroaten aurka jarri dira eta horrek asko arduratzen du Josu. Errefuxiatu musulman asko baitago Kroaziako kanpamenduetan, "eta orain presoen kanpamendu bihurtuko balira?"

**NEGURAKO BEHARRAK**

Baina Josu Herrartek ez du gerra giroa bizi izan, horren ondorioak baizik. Gasin-

**"Negurako oinetakoak, berokiak eta galtzerdiak behar dira han, eta baita janari freskoa ere".**

ciko errefuxiatu kanpamenduan bizi izan da hiru astez eta hango umeen aurpegiak buruan ezarririk ekarri ditu. "Neskatila mutikoekin lan egitea zen gure egitekoa: goizetan gimnasia apur bat, eskulan tailerrak, arratsaldetan hizkuntzak ikasteko tailerrak. Hori teorian; Gasincin 2000 pertsona inguru daude ume, emakume eta zaharren artean, eta nagusiak irratiaren pendiente bizi direnez, umeei ez diete kasu larregirik egiten eta gu iristean umeak bolkatu egin zitzaizkigun. Hizkuntza ezberdina izan arren, erlazio estua lortu dugu, segun guztia elkarregin". Kroaziera ikasteari ere ekin dio Josuk



Neska-mutikoekin harreman afektibo estua lortu du Josuk.

eta euskararen antza baduela esaten du.

Hango beharrak aipatzean, neguaren ateetan daudela akordatzen zaio Josuri. "Erropa normala badute, baina ez galtzetinik, neguko oinetakorik eta berokirik. Eta negua oso gogorra da han, bi metrotako elurteak egiten ditu. Gero kanping dendetan bizi dira, eta ganorazko etxeak behar dira. Gauza harrigarri bat gertatu zen gu han geundela: Alemaniako Guretze Gorria egurrezko bungalow polit batzuk egiten hasi zen eta hiru egunetan 30 etxe egin zituzten eta 100 milioi pezeta gastatu, guztira 180 lagun sartzeko. Beste 1.400 lagun aterperik gabe geratu dira dirutza hori gastatuta. Horrelakoxeak gertatzen dira".

**KOLPERIK HANDIENA**

"Gerra, gerra ez da hain zuzenetik igartzen, neska mutikoekin jolasean ari zarela. Nik lehenengo aldiaz, gau batez autobus batzuk iritsi ziren Zagrevetik, Alemaniara edo ihes egitea intentu eta poliziak engainatuta berriz bertara ekarri zituenean pasa nuen momentu larria. Eta ez zuten han geratu nahi. Bestalde, oso gogorra da egunero norberarekin jolasean dabilen neskatila bat aita hil diotelako negarrez ikustea, Dinkaren kasua". Eta han denek dute euren drama pertsonala.

**ASMOAK**

Josu ez dago etxean geratzeko. Gabonetan berriro joan nahi du bere lagunak bisitatzera, eta ez du eskuhutsik joan nahi. "Hemendik bialdutako edozein gauza galdu egiten da bideak eta neuk eramango dut, eta inondik ahal badut konboia antolatu nahi nuke". Oinetakoak, neguko jantziak, ahalik eta jakirik freskoenak eraman nahi ditu: "han kontserba asko jaten da, kadukatutako gauzak eta gosea kendu baina gutxi alimentatzen duten janariak. Garraioa edukiz gero, gauzak lortzea ez da zaila, baina nola eraman konpondu behar da".

**"Hemendik bialdutako gauzak ez dira hara iristen, eta berriz noanerako konboia antolatzea da nire asmoa".**



## Bihotzeko berbak

Kaminbazterretik oinez noa paisaiaren edertasuna mirestuz eta pentsatzen dut sekula ere ez naizela nire Euskal Herri maitetik hain hurbil sentitu hemen bezala. Burgosen 18 urteko herbesteratzearen ondoren, nire bihotzean betidanik nire lurraren oroitzapenarekin lotuta egon izan diren irudiak agertzen zaizkit aurrean.

Hrvatskako (Kroaziako) lurrak oso berdeak dira eta bertako herrixketako nekazal giroa gure baserrietakoaren antzekoa, herri honetako jendeak ere maitasun handia sentitzen du bere lurrarengatik.

Momentu honetan, traktore bat geratu da nire alboan eta hurbilen dagoen herriraino eramango nauela eskaini dit. Nire inpresioak berrindartu egiten dituen beste keinu bat da.

Baina ni ez nago hemen turismoa egiten eta nire buruan Errefuxiatu Kanpoko nire lagun bosniarren irudiak agertzen dira.

Eurentzat samin garaiak dira eta euren drama pertsonalak konpartitu ditut: haur umezurtzak, aita konzentrazio zelaian duten neskatilak, alabak oraindik Sarajevon dituzten familiak, eta nire bihotza tristetzen duten beste kasu asko.

Lur hau oso hotza izango da eurentzat, 9 urteko mutiko arrasatear batentzat Burgosko lurrak izan ziren bezala.

Neskatila-mutiko hauek laguntza behar dute. Gauza bera gertatu zen Gerra Zibileko garaian urrutiko lur hauetako anaiarrebengandik laguntza jaso zuten milaka neskatila eta mutiko euskaldunekin. Beharbada garaia iritsi da Euskal Herriak ere solidaritate adierazpen berberekin erantzun dezan.

**JOSU HERRARTE**

# Angel Garcia 'Atlanta 96'-ko bideean jarri nahiean

**Euskadiko** Halterofilia Federakuntzak Angel Garcia arrasatearra Atlantako Olinpiadara eraman nahi du, baina horretarako prestakuntza berezia eman beharko zaiola zioen Florian Simonek, federakuntzako lehendakariak. "Gure nahia, Angel Madrileko Joaquin Blume erresidentziara bidaltzea litzateke; dena dela, hori lortzeko laguntza ekonomikoa behar da, eta hor Arrasateko herriak zer esana izan beharko luke".

Halterofilia Federakuntzako arduradunek konfidantza handia dute arrasatear gazte honengan, "baldintza txarretan entrenatuta eta inoren laguntza barik Estatuko Txapelketa bi aldiz lortu badu, zer egingo luke behar bezalako entrenamendua izanez gero?". Angel Garciak ere, izugarrizko ilusioz hartuko luke Joaquin Blume erresidentziara joan ahal izatea, "nire ametsik ederrena da, neuk nahi dudana egin eta gutxi balitz soldata on bateaz"



Kirola egiteko aukera zabala izango dute gaztetxoek.

### Entrenatzailea gutxienez

Behar bada arrasatear gaztea Blume erresidentziara bidaltzerik ez da izango, arazo ekonomikoez gain, han sartzeko Halterofilia munduan marken arabera ematen diren puntu jakin kopuru bat behar baita, eta momentuz Angel Garciak ez du halakorik. Dena dela, punturik ez izatea ez litzateke bete beteko eragozpena izango, lagun onak izatea eta behar den presioa egiteak balio handia du eta baita mundu honetan ere.

*Laguntza barik Estatuko bi Txapelketa lortu baditu, behar bezalako entrenamenduaz, zer egingo luke?*

Hala ere, baliteke Blumeko asmoak huts egitea. Kasu horretan ere, Halterofilia Federakuntzak ez du Angel Garcia bakarrik utzi nahi eta entrenatzailea jarri dio, Cesar Martin arrasatearra, IVEF ikasketak egin eta orain Halterofiliaren teknika lantzen ari dena. Hemendik aurrera, bera izango da Angel Garciaren entrenamenduak zuzenduko dituena.

## LABURRAK

### Saskibaloiko jokalarien gurasoen batzarra

Saskibaloi taldeak dei bat luzatu die jokalarien gurasoei, larunbatean Monterronen egingo den batzarrera ager daitezen. Batzarra 11etan hasiko da, bertan 91-92 denboraldiko datu adierazgarrienak eta 92-93 rako helburuak azalduko dira. Guraso eta saskibaloi taldearen arteko harremanak aztertuko dira. Baliteke gurasoei lotura ekonomiko eta konpromezu handiagoa eskatzea.

### Pilotariak motel samar oraingoan

Joan den astean pilotariei gauzak ez zitzaizkien aurrekoetan bezain ondo joan. Izan ere, jokatutako bederatzi partiduetatik bi bakarrik irabazi zituzten, biak eskuz, bata infantiletan eta bestea jubeniletan. Asteburu honetan, txikiek oñatiarren aurka jokatuko dute, jubenilek Soraluzen, nagusiek Zumarragakoen aurka eta palakoek Musakolan andoaindarren aurka.

### Eskubaloian lehen garaipenak

Hiru ihardunaldi pasa behar izan dira Arrasateko Eskubaloiko lau taldeetatik, bik behintzat garaipena lortzeko, seniorrak eta juniorrak hain zuzen ere eta joko ona eskainiz gainera. Lehena izaten omen da zailena, beraz datorren astean garaipenak lortzeko beste aukera bat, batez ere jubeniletantzat, etxean jokatuko dute eta.

ECUADOR
Bidaiak
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

KOOP. E S. COOP
EGVZKIGRAF
Grafikagintza. Tipografia.
Offset industriala
• Liburuak
• Aldizkariak
• Katalogoak
• Liburuskak
• Merkatal inprimakiak
• Bulegoko materiala
Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

## PENALTIAK

**● Jon Ander Juldain eta Jose Mari Balzategik, saskibaloi taldearen izenean, ehundaka ate jo dituzte saskibaloi taldeentzat dirua lortzeko; erantzun denak ezezkoak. Arrasate eta inguruetako enpresetara jo dute, baina baita kanpora ere, enpresa japoniar bat barne.**

**● Atez ate burutu duten erromesaldian, denetarik entzun dute Balzategi eta Juldainek, baina astearteko prentsaurrekoan adierazi zutenez, gogorrena AUKEArekin egindako bilera batean esan omen zien zinegotzi batek: "Zuen arazoa gehiegi haztea izan da". Eta, gazteek saskibaloian jokatu nahi badute, zer?**



## Dirua bukatzen zaienean saskibaloikoek amaitutzat emango dute denboraldia

Arrasate Saskibaloiko presidenteak, Jose Mari Balzategik asteartean Pleno Aretoan burututakó prentsaurrekoan adierazi zuenez, saski-baloi taldeak alde batera utziko du denboraldia dagoen dirua gastatzen denean, urtarrila edo otsaila aldera aipatzen zuen. Dirudienez, saskibaloikoek sponsor baten bila egin dituzten ahalegin guztiak alperrikakoak izan dira, eta dagoeneko etsi egin dute. Prentsaurrekoan, Balzategik Arrasaten kirolaren egoera txarra dela aipatu zuen, Udalak kirolarekiko duen jarrera salatu eta AUKEAk huts egin izana adierazi zuen; era berean, enpresen laguntza-ezaz kexatu zen. Duda barik, luzeago eztabaidatzeko gaiak, polemiko bihur daitezkeenak gainera.

◆ ◆ ◆

**Zergatik ibili zen iaz San Andres hain gaizki eta aurten ondo?**

Aurreko urteetatik jokatzen gabiltzanok dagoeneko lortu dugu heldutasun maila; bestetik , aurten igo duten jubenilak oso onak dira.



**DABID ZAITEGI**
**San Andres taldeko jokalaria**

## EMAITZAK

### Pilota

**Gipuzkoako liga**
Alebinak: Bergara 18 - Arrasate 17
Infantilak: Bergara 2 - Arrasate 18
Kadeteak: Bergara 18 - Arrasate 10
Jubenilak: Eskuz esku: Arrasate 10 - Azpeitia 18
Bikoteka: Arrasate 22 - Azpeitia 14
Nagusiak: Eskuz esku: Arrasate 10 - Oñati 18
Bikoteka: Arrasate 13 - Oñati 22
Paletaz: Arrasate 31 - Anoeta 35
Pala motzez: Arrasate 19 - Anoeta 40.

**Hurrengo partiduak**
Txikiak: Oñatiren aurka, larunbatean Iturripen, 10.30etan.
Nagusiak: Zumarragaren aurka, larunbata goizean Iturripen.
Palaz: Andoainen aurka, larunbatean Musakolan. 11.30etan.

### Eskubaloia

Seniorrak: Arrasate Kirolak 17 - Bidebieta 13
Juniorrak: Arrasate Kirolak 22 - Legazpia 11
Jubenilak: Hernani 16 - Arrasate Kirolak 10
Kadeteak: Arrasate Kirolak 12 - Bergara 21

**Hurrengo partiduak:**
Jubenilak: Igandea, Iturripen 12etan, Bidebietaren aurka.

### Futbola

3. maila: Mondra 3 - Lagun Onak 2
Emakumezkoak: Alde Zaharra 1 - Mondra 0
Preferentea: Atl. Alaves 0 - San Andres 3
Ohorezko liga: Añorga 2 - Mondra 5
Lehen mailako jubenilak: San Andres 2 - San Ignacio 3
Lehen mailako kadeteak: Arrasate 7 - Lazkao 1
Bigarren mailako kadeteak: Arrasate 1 - Almen 1
Haurrak: Arrasate 5 - Ilintxa 3
Arrasate 0 - Urki 1.

**Hurrengo partiduak**
Emakumezkoak: Mondra - Ostadar, igandea 15.45etan.
Preferentea: San Andres - Ariznabarra, larunbata 15.45etan.
Ohorezko liga: Mondra - Ordizia, igandea 11.30etan.
Bigarren mailako jubenilak: Arrasate - Gazteak, larunbata 12.00etan.

### Rugbya

Kadeteak, Arrasate - Atl. San Sebastian, Atxabalpen, larunbata 16.30.

### Saskibaloia

2. maila, gizon.: Arrasate 87 - Alvecon 83
Emakume.: Antenas Dominguez 67 - Arrasate 72.
Juniorrak: Arrasate 45 - Politecnico A 68
Jubenilak, gizon.: CAF 61 - Arrasate A 81
Arrasate B 52 - Goierri 47
Emakume: Loiola 44 - Arrasate 65
Kadeteak, gizon.: Arrasate A 66 - La Salle 97
Emakume. Arrasate A 29 - Juven 95

**Hurrengo partiduak**
2. maila, emak.: Arrasate - Utxorigorria, lar. 18.00.
Jubenilak, gizon: Arrasate A - Laskorain, lar. 16.00.
Emak, Arrasate - Cía de Maria, igandea, 12.00.
Kadeteak, gizon: Arrasate C - Zahor A, ig. 10.00
Emak. Arrasate B - Laskorain, Iturripe, ig. 10.00.


ETXEPARE - BILINTX
LIBURUDENDA
Liburuak eta diskoak
Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50

Gabriel Elorriaga Dka.
Loditasuna
Zelulitia
Zelulolipolisiaren tratamendua
Santa Kruz, 24-1ª (1ª C eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

# HIESaren lehen hamarkada

## Gaur egungo egoera (eta II)



Laburbilduz, arriskurik handienak sortzen dituztenak, preserbatiborik gabeko sexu harremanak eta odolaren kontaktua duten praktikak dira batez ere toxikomanoenak.

Infekzioa konturatu gabe hartu ohi dute gaixo gehienek. Organismoa birusari aurre egiten ahalegintzen dela, beste edozein mikrobiorekin egiten duen bezalaxe antigorpuak sortuz.

Norberaren ziurtasunerako, hots, antigorpuak dituen ala ez jakiteko, nahikoa da analisi sinple bat egitea. Antigorpuak kutsatua izan eta handik bi edo sei hilabete bitartean azaltzen dira.

Behin antigorpua azaldu eta gero, hamar urte edo gehiago pasa daitezke HIESa garatu arte. %50etik -%80ra bitartekoa da antigorpua izanik HIESa hartzen dutenen kopurua hamar urtetako tarte honetan. Tarte hori pasa eta gero gerta daitekeena ikertu gabe dago oraindik.

### Aurrera begira

Nahiz eta neurri asko hartu diren, gaixotasuna kutxatzea eragotzi dezaketen neurri bakarrak ondorengo hauek dira oraingoz: Drogazaleek bakoitzak bere xiringa erabiltzea eta batez ere preserbatiboen erabilpena bultzatzea.

A.Z.T. eta antzeko beste zenbait farmako agertu izanak birusaren aurkako aldaketa kualitatiboa ekarri du, honen eragina geldieraziz. Dena dela, emaitzak ondorengo urteetan jaso ahal izango dira.

Hau dena ikusita, argi eta garbi esan beharra dago HIESa guztion arazoa dela eta ez bakarrik talde marginalena.

**EUGENIO ITURRIOZ**
**MEDIKUA**




Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

# LANDARE ETA LORE ZAINKETA

## BARRUKOAK eta KANPOKOAK




ORTUGINTZA BIOLOGIKOA.

EMALEA: JAKOBA REKONDO

EGUNAK: AZAROAREN 2 eta 9.

ORDUA: ARRATSALDEKO 3.30ETA

TOKIA: AED ELKARTEA.

ANTOLATZAILEA: "EKIN" EMAKUME TALDEA.

# Martin Abade

**Ehiza** garaian ere sartuta gaudenez, gure bailaran ehizazaletasunagatik entzutetsu egin zen pertsonaia baten gorabeherekin gatoz gaurkoan. Inguru hauetako mito eta legenden artean bat, Martin Abaderi buruzkoa da. Ez dakigu Martin Abade delako hori Larriñoko apaiza, Mondragoeko Artziprestea, Udalako parrokoa ala Bedoñako onuraduna zen; batzuen esanetan, eta Larriñoko parrokian agertutako paper batzuetan oinarrituz, XVII. mendearen erdialdera bizi izan zen. Beste batzuk ertaroan kokatzen dituzten abade jaun honen gorabeherak.

Edozela ere, Martin Abadek, ez zituen oso gustoko eliza kontuak eta eginkizunak eta ehizarako beste ezertarako baino zaletasun handiagoa zuen. Bere semealabak balira bezala zaitzen zituen txakurrak. Erbitxakur eta ehizatxakurrak ederrak zeuzkan, eta goiz eta arratsalde ibiltzen zen haiekin ehizean, bere eginkizunetarako asti barik. Bere ohituretaz esaten zenez, "argindarraren abiaduran ematen zituen elizkizunak, sermoiak takigrafiaz egiten zituen eta foruzale bat lotzen ematen dena baino denbora gutxiago ematen zuen bizperak kantatzen. Eta aiper aiperrik ziren jendearen marmarrak eta eliz agintarien abisuak".

Txakurren atzetik behin, Udalako parrokian zegoen Martin Abade meza ematen, eta bere txakurrak kanpoan. Kontsagrazio garaian, zaunkaz hasi ziren txakurrak. Ezin izan zion gogoari eutsi: otoitza eten, misala itxi eta zaukak entzuten jarri zen, eta eliztarrak eta meza bertan behera utziz, txakurren atzetik joan. Basoan galdu zen arima erratua bezala, eta inork ez du harrez gero bere berririk izan.

Udalako artzai zaharrek diotenez, Jainkoaren zigorra betez, haitzez haiz ei dabil oraindik Martin Abade etengabe, bere txakurrekin batera. Neguko gau euritsuetan, ekaitzaren danbadak eta haizearen zaratak entzuten direnean, abade ehiztariaren ohiuak eta txakurren zaunkak direla esaten da. Sua aztindu, gaztainei danbolinean buelta eragin eta betiko komentarioa sutondoan: "Martin Abade da txistuka dabilena".



## SUTONDOAN

### ATALTXO (eta IV)

Hauek, elkarrekin baturik, zinegotzi, alkate jaun eta herrian zerbait ahalbide edo influentzia zuten gizonei eta denen artean osatutako batzar berezi baten, Ataltxo nola saritu erabaki zuten. Herriko "Ongile eta Seme Kuttun" izendatu zuten.

Etxeratu zirenean amak esan zuen:

—Enetxook, arratsaldeko lauterdiak dira eta oraindik inork ez dugu ez gosaldu ez bazkaldu eta nik ezer gerturik ez daukat. Orain dirua nahi adina badugu eta non bazkaltzea nahi duzue?

—Joxepatxoreneko goxotegian— erantzun zuen semeak.

Hirurak elkarri eskutik helduta Joxepatxorenera sartu zirenean, Marimek urrezko ontzakoa luzatu zion honi. Hau, pozetan igari urre dirua lehendabiziko aldiz bere mende ikusten zuelako, zer nahi zuten galdetu zien.

—Bazkaltzea—erantzun zioten eta nolako bazkaria gero! Hango bonboi, karamelo, pazientzi eta txikitiluak! Sekula inork, inoiz, inon ez du halako bazkari goxorik egin.

Enetxook: hain itzaltsu eta agurgarri diren parroko, alkate eta abarrek honela goraltzen dutenaz, nik zer esatea nahi duzue? Gauza bat bakarrik esan dezaket, baina bera bihotz bihotzez: Gora Ataltxo!

ARREGITAR TIBURTZIO

mokasin
Zapatak eta osagarriak
IREKITZEA:
LARUNBATA HILAK 31.
Kontzeziño, 6 Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

aitzgorri
LARRU eta LARRUKIAK
Salvatierrako larrukiak
60km.tako beherapenarekin.
Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE



Madrid, 1968ko ekaina

Ekainaren 30ean 1968an Zigor opera estreinatu zen Madrileko Zarzuela Antzokian. Arrasatear batzuk ere hartu zuten parte opera horretan. Hasierako obra Arturo Campion nafarrak idatzi zuen gazteleraz, eta ondoren Manuel Lekuonak letra euskaraz, eta musika Frantzisko Escuderorena da.

30 lagun inguruk hartu zuten parte antzezpenean; Escuderok kantore euskaldunak behar zituen eta Bilbonaurkitzen ez zituenez Arrasaten Arzamendiren bitartez eta Ondarruko beste batzuk batzu osatu zen taldea. Mondragoetarrak vikingoak izan ziren eta Ondarrutarrak euskaldunak. Antzezpenak harrera ona izan zuen eta bi egunez bete beteta egon zen aretoa. Fraga Iribarne zegoen Informazio eta Turismoko ministrari orduan.

Pelikula batetarako egindako erropak erabili ziren antzezpenean, 5 edo 6 kiloko ezpatak barne.

Baina ezagutu al dituzue erretratuan agertzen diren kopeta luzedun vikingo arrasatearrak? Hona hemen denen izenak, bakoitzak asma dezala nor den nor: **Jose Mari Mendizabal, Patxi Nafarrate, Juanito Arzamendi, Karmelo Heriz, Pedro Zumelaga, Julito Iriondo** eta **Iñaki Larrañaga**. David Arzamendi ere han zen baina ez dago argazkian.

Opera amaitu eta Madrileko kale zaharretan kopeoan ari zirela, etxeko batarekin balkoian zegoen andre batek ezagutu egin zituen eta "gutako baten izena esaten hasi zen. 'Luego, luego! A mí líos no, e?' erantzun zuen gure lagunak. Zer da eta azkenean behera jeitsi eta saludatu gintuenean ezagutu genuen, emakume mondragoetar bat zen, bere ahizparen pentsioan zegoena".

HIRE

Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71

ALE S.A.

• Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
• Otzaratzarrak
• Giltzak gordetzeko armairuak
• Erremintak eramateko gurdiak
• Erremintak gordetzeko armairuak
• Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

## Etxebizitzak

- **Etxebizitza salgai San Andresen.** Foruen Plaza, 3.- 5 ezk. Tfnoak: 79 47 28 eta (945) 44 51 99.
- **Ikasle batek logela behar du Arrasaten.** Dei egin 28 75 70 tfnora.
- **Etxebizitza salgai Zigarrolan.** Tfnoa: 79 79 94
- **Bi oheko logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73
- **Etxebizitza berria salgai Zarugalden.** Tfnoa: (945) 25 89 03.
- **Eskoriatzan etxebizitza batean logela bat alokatzen da.** Dei egin asteburutan 64 34 14 tfnora.
- **Pisua osatzeko pertsona bat behar da Arrasaten**, dei egin goizez 79 11 19 tfnora.

## Lana

- **Edozein lan mota egingo nuke.** Dei egin arratsaldetan 79 50 30 tfnora. Jose Migel.
- **Neska prest umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Dei egin 10etatik 3etara. Tlfnoa: 76 05 63.
- **Esperientziadun sukaldari-laguntzailea** lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 87 27.
- **Matematikako klase partikularrak behar dira** larunbat arratsaldetan. Dei egin 79 93 52 tfnora gauetan eta galdetu Leiregatik.
- **Italianoko irakasle partikularra behar da.** Tfnoa: 79 21 72. Blanka.
- **Andrea prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko** edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 76 33 48.
- **Ingeleseko klase partikularrak behar dira.** Tfnoa: 79 72 92.
- **Umeak zainduko nituzke.** Dei egin 79 60 16 tfnora.
- **OHOko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 60 16.
- **Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.** Kotxea beharrezkoa da. Dei egin 8etatik aurrera 79 77 57 tfnora.
- **Furgonetadun mutila lan egiteko gertu.** Tfnoa: 77 04 87. Arratsaldetan.
- **Emakume euskalduna orduka etxeko lanak egiteko gertu.** Tfnoa: 79 07 73.
- **OHOko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 71 05. Miren.
- **Bi neska gertu gaude etxeak, atarteak edo bulegoak garbitzeko.** Tfnoak: 79 82 18 Mari Jose edo 76 06 79 Maribi.
- **30 urteko emakumea etxeko lanak egiteko gertu.** Tfnoa: 77 06 92.
- **Alemana hutsetik hasita ikasi nahi nuke.** Norbait erakusteko prest balego, deitu dezala ilunkaratan 79 41 94 tfnora. Miriam.

## Salerosketak

- **Bideo grabatzailea, kamara eta monitorea Beta sisteman** interesatzen bazaizkizu dei egin. Tfnoa: 77 12 28. Jabi.
- **Spectrum ordenadorea eta 19 joku salgai** 24.000 PTAtan. tfnoa: 79 93 91.
- **Irrati-kaseta salgai.** Neurriak 20 X 55 zm. 60 w, zinta batentzat, 7 kanal. 7.000 PTA. Dei egin 79 91 50. Jon.
- **Corsa Swing 1.4. SS-AL salgai.** 9 hilabete ditu eta 7.000 Km bakarrik. Oso oso ondo dago. Tfnoa: (945) 22 69 26.

## Denetarik

- **Urrezko gemeloa galdu nuen kalean hilean 11n. Topatu baduzu dei egin mesedez 79 21 03 tfnora. Saria izango duzu.**
- **Autobus geltokiaren ondoan umeen txamarra bat aurkitu dugu.** Tfnoa: 77 11 68. Karmen.

# Aste Gazte

### Lanpostuak

• Arrasateko Udalak Zuzenbidean lizentziatu bat 3 urtez kontratatzeko deialdia egin du, Administrazio Orokorreko Teknikari lanpostua betetzeko. Epea: azaroak 2.

### Bekak

• Ikerketa eta Teknologi Garapenerako Bekak. Industri Inginariei zuzenduta. Dirulaguntza: urteko 1.000.000 PTA. Epea: Arazoak 6.

• Goi mailako lizentziatuei zuzendutako ikerketa-estudioetarako bekak. Dirulaguntza: urteko 1.000.000 PTA. Epea: Azaroak 16.

### Camp America

• Datorren urteko uda urruti ikusten bada ere, "Camp Amerika" kanpamenduetan esku hartzeko gogoa duzuenok mugitzen hasi beharko duzue.

### Lehiaketak

• Azaroaren 6an amaitzen da AEDk antolatutako "Arrasate -92" lehiaketetan parte hartzeko epea. Modalitateak: a) komikia, argazkia, diapositiba eta bideoa; b) ipuina, poesia eta bertsopapera.

• Arrigorriagako VII. Ipuin Lehiaketa. 30 urtetik beherakoei zuzendua. Euskaraz nahiz gateleraz. Gai librea. Epea: azaroak 20.

**"Zahartzaroa ia bizitzako garairik interesgarriena da, baina zahartzaro interesgarria izateko bizitzaren arlo guztietan interesa izan behar da. Zahartzaroa bizitza guztian zehar prestatu beharreko garaia da."**

**ANTONIO GALA**

**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**

# ZER NAHIAGO?

## Mª Elena Carmona

### Abaroako ileapaindegikoa



- **Ilean kaspa ala grasa izatea da txarrago?** Biak ere ez dira onak.
- **Eta horretarako erremedioa?** Bakoitzarentzako tratamendua eta jarraipena.
- **Noiztik lan honetan?** Badira 6 urte hemen nabilena.
- **Ordu asko egon behar zutik, ezta?** Bai beharbada lanaren gauza txarrena hori izango da.
- **Ze aldizkari irakurtzen duzu?** Denettik: "Kid", "Muy interesante"...
- **Zerk egiten dio kalte handiena ileari?** Eguraldi aldaketa gogorrak eta gaixotasunak.
- **Igande arratsaldetan zer egiten duzu?** Zinera joan edo pasiatu.
- **Telebistako programa bat?** "Teleberri" eta "Cifras y letras".
- **Zeorrazketa dago modan?** 60. urtekoak, melena motzak.
- **Tinteak edo koloreak onak ala txarrak dira?** Guk gauza naturalekin eginiko tinteak erabiltzen ditugu eta horiek nahiko onak dira.
- **Noiz betetzen dituzu urteak?** Abuztuaren 17an.
- **Zenbat anai-arreba dituzu?** Ahizpa bat.
- **Pijama ala kamisoiarekin egiten duzu lo?** Neguan pijamarekin behintzat.
- **Gehien gustatzen zaizun izena?** Izen motzak: Maria eta horrelakoak.
- **Egin dizuten azken oparia?** Bertako emakume batek pasta batzuk eman zizkidan.
- **Zenbat berezo etortzen dira egunero?** 11 edo 12.
- **Zein da zuretzat lanik gustokoena?** Elbarrituekin lan egitea, tratu pertsonalagoa izaten delako.
- **Zeri diozu beldurra?** Etorkizunari, lanik ezari.
- **Pasa duzun azken egun politena?** Lagunekin mendian pasatu nuen eguna.

## BERTSOAK

### HEGO HAIZEA

1
Urte (ospe) hau ere aurrera doa
urtarorikan urtaro
udaberria ta uda ere
jada zaizkigu igaro
udazkenean ziztuka ari
da hego-haizea zoro
lehen ere nahiko zoro ginenok
zoratu gaitu zeharo.

2
Hego haizea alperrik dabil
ziztuka ikasleontzat
ikastolatik haizeen deia
ez bait dugu hartzen aintzat
usoen gisa hegan egitea
askoz hobe da guretzat
zuhaitz ostean ehiztariren bat
ageri ez bada behintzat.

MAIDER OSA



FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



DAMKAR'T

Estetika eta
Ileapaintzaile Eskola
M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52
EIBAR

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

# *Susana Jurado*
# Andaluziako dantzak hemen

**19 urteko gazte hau, Andaluziako dantzak ikasten ibili da Al-Andalus zentrua sortu zenetik. Guztira 60 neska-mutiko dabiltza ikastaro horietan.**

**— Noiz eta zergatik hasi zinen dantzan?**

— Al-Andalus zentrua sortu zenean hasi nintzen dantzan. Betidanik gustatu izan zait asko sebillanak dantzatzea eta txikitan ere interes handia nuen ikasteko. Andaluziara oporretan bakarrik joaten naiz. Arrasaten Andaluziako ohiturak bizi izateak ilusio handia egiten dit. Hori dela eta, ikastaro hauek martxan jarri zirenean berehala eman nuen izena. Ordutik neska mutiko asko gabiltza dantza horiek ikasten, 30 heldu eta beste 30 ume gutxigorabehera.

**— Ikastaro hauetan Al Andalus-eko bazkideek bakarrik hartzen dute parte?**

— Ez, badaude zentruko bazkide ez direnak ere, dantza hauek ikasteko izena ematen dutenak, gustatzen zaien guztiak etorri daitezke. Ikastaro hauek hasi zirenean jende asko apuntatu zen eta horregatik bazkide zirenak bakarrik onartu ziren baina



gaur egun interesa azaltzen duten denak etortzen dira. Guk ere astean bi ordu entsaiatzen dugu, ikasten jarraitzeko eta dantzak perfekzionatzeko.

**— Andaluzian dantza mota asko egongo dira, ezta?**

— Bai, baina guk normalean sebillanak, fandangoak eta "tientos por bulerias" deitzen direnak dantzatzen ditugu. Horrez gain beste dantza asko daude: "runbak", "seguidillak"... Niri batez ere takoneoa gustatzen zait, hau da, dantza gogorrak .

**— Toki askotan dantzatu duzu?**

— Bai, batez ere Arrasaten izaten den Andaluziako jaian denok egin izan dugu dantzan baina horretaz gain, beste herri batzuetan izan gara: Donostian, Ermuan, Cordobako Montilla herrian, Andorran, Gasteizen...

**— Izan duzue beste herri batzuetako dantza taldeekin erlaziorik?**

— Bai, sebillana dantza taldeekin izaten ditugu harremanak baina horretaz gain, Arrasateko Lore Gazteak taldearekin egin genuek elkar trukea guk euskal dantzak ikasteko eta eurak Andaluziako dantzak. Oso esperientzia polita izan zen eta uste baino zailagoa da trikitixa dantzatzea, sebillanak baino zailagoa, hankak mugitzen oso ondo jakin behar da eta.

**— Soinekoak garrantzi handia du dantzatzeko orduan?**

— Bai, gainera dantza bakoitzak bere jantziak ditu, desberdina da gitana jaztea edo sebillana dantzatzeko jaztea. Batzutan kaleko erropekin dantzatzea ere tokatu izan zait baina desberdina da, ematen du soinekoak lagundu egiten duela hobeto dantzatzen. Bestalde bikotearekin dantzatzeak ere asko laguntzen du, dantza batzuetan, sebillanetan batez ere.

## LABURRAK

### ◆ "Iokin Zaitegi" eta "Arrasate 92" lehiaketetan epea itxi

Datorren azaroaren 6an itxiko da epea "Iokin Zaitegi" eta "Arrasate 92" lehiaketetara lanak aurkezteko. "Arrasate 92" lehiaketan komikia, argazkia, diapositiba eta bideo sailak bereiztuko dira. Komikian 4 orrialdi gutxienez eta 6 gehienez aurkez daitezke; argazkiak zuri-beltz edo koloretakoak izango dira; diapositibak 3 gutxienez eta 5 gehienez aurkez daitezke; eta bideoan filmeen iraupena 5ekoa gutxienez eta gehienez 15ekoa izan beharko da. Bestalde, "Iokin Zaitegi" lehiaketan "V. Mendeurrena-Amerikaren aurkikuntza" gaiaren inguruan euskarara itzulitako lanak onartuko dira. Lehiaketa bietan AEDk izendatutako zenbait adituk osatuko dute epaimahaia. Eta irabazleen izenak Santamasetan ezagutuko dira, abenduaren 21ean. Interesatuok datorren ostirala baino lehen, helbide honetara bidali zuen lanak: AED Elkartea, Pablo Uranga Kalea 4, Arrasate.




ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

HERIZ
ERAIKUNTZAK
Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

SALABERRI
HARATEGIA-URDAITEGIA
Azoka Plaza, 22.postua
Tfnoa: 79 12 09 ARRASATE

## MITOLOGIA

### BEREZKOA ETA AIDEKOA

Munduak eta gizakiak bi alderdi ditu: bata berezkoa da "izatez dena", "naturaz dena"; bestea, aidekoa "naturaz gaindikoa", "mistikoa". Lehenengoan eragin ahal izateko, indar eta bide naturalak erabili behar dira; bigarrenean, otoitzak eta magiak bakarrik balio dute.

Axangizgo aztiak orain berrogeitamar urte dela Barandiarani esan zion bezala: "Badaude, teknikoaren meneko eta ardurakoak diren egoerak. Baita, apaizen ahalmenekin zerikusia duten beste batzuk ere. Baina beste batzuk, nire gaitasunei soilik dagozkie", hau da, magiari.

Inongo eraginik jaso gabe, berez sortutako fenomeno edo gauza da berezkoa. Berezkoaren alderdi naturala aldatzeko gaitasuna du gizakiak, baliabide fisikoen laguntzaz, nahiz otoitzaren edo magiaren bidez. Eguneroko bizitzan ohizkoak diren egoerak beraz, edozeinek alda ditzake, modu batean edo bestean.

Baina azaltzen dira noizean behin, ohizkoak ez diren egoerak; azalpen errezik ez duten gertaerak; nahita ere aurka egiteko tresnarik gabe uzten gaituzten izkutuko indarrak... Horiek guztiak, aidekoak dira.

LIHER LARREA

# *Globo Rojo*, Santa Agedan talde lanean egiten den aldizkaria

**Santa** Agedako gaixoek ateratzen duten *Globo Rojo* aldizkariaren hemeretzigarren zenbakia, kalean da dagoeneko. Zenbaki honetan, beti bezala, gaixoek idatzitako ipuin edo poesiak, Santa Agedako azken berriak, gaixoen iritziak etab. aurki daitezke.

Hamar urtetako bizitza du *Globo Rojo* aldizkariak eta denbora horretan, argitaratze maiztasun gorabehera handiak izan ditu aldizkariak. Argitaratze maiztasun gorabeheren arrazoi nagusia, Santa Agedakoek aldizkaria argitaratzeko duten sistema bera da; izan ere, aldizkarirako ez dago programaketa berezirik eta gaixoek duten gogoaren arabera egiten da. Alde horretatik, Kristina Padillak, Ospitaleko Gizarte Laguntzaileak, aldizkari libretzat du *Globo Rojo* "bildu astero biltzen gara, baina ez dago talde finkorik, nahi duen guztiak har dezake parte. Zentsurarik ez dago, ekartzen dituzten lan guztien artean aukeraketa egin eta kitto".

Aldizkariaren zenbaki bakoitzeko, bostehun ale ateratzen dira, 150 PTAtan saltzeko, Arrasaten batez ere. Alearen zenbaki guztiak saldu arte, ez da berririk argitaratzen. Besterik pentsa badaiteke ere, aldizkarien salmentarekin lortzen den dirua ez da *Globo Rojo*ko zenbaki berria egiteko erabiltzen, inprenta gastu guztiak Ospitalaren kontu doaz eta. Salmentetan ateratako diruaz gaixoentzako ekintzak antolatzen dira, bazkariak, ibilaldiak, jaialdiak... "Izan ere – zioen Kristina Padillak- aldizkariaren helburuetariko bat talde-giroa sortzea da eta horrelako asko laguntzen digute ekintzek. Talde-lana edo talde-giroa pizteaz gain, gaixo bakoitzaren espresio bideak irekitzen ditu aldizkaria egiteko prozesuak, idazle edo marrazkilari bakoitzak barrutik irteten zaion guztia islada dezake eta".



Denetarik aurki daiteko *Globo Rojo* aldizkarian.

Araba Etor., 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32

OHIZKE
Koop. E.

Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

ALEMANA FRANTSESA INGELESA
Maila guztiak. Umeak, gazteak, helduak. Goizez eta arratsaldez.
ZATOZ GURE BULEGOETARA!
(Goizeko 9etatik 1etara eta arrqtsaldeko 4etatik 8etara)

PEUGEOT-TALBOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

## · AIPUA ·

*"Zoroak eta hildakoak dira iritzirik sekula aldatu ez dute bakarrak".*

*James R. Lowell*

## · JEROGLIFIKOA ·




**Zer ekarri zuen ekaitzak?**

## · GURUTZEGRAMA ·




J. B. Agorria

**Horizontalak** 1. Euskadiko Ezkerra. 3. + 8= idazle arrasatearra. 8. Ikus 3. 10. At. 11. (Ald.) Ontzat emana. 12. Ozpel. 13. Trebe. 14. (Ald.) Higuin hotsa. 15. Demas. 16. 1984an Fisika Nobel Saria. 18. (Ald.) Lagunartean igualatorioko.

**Bertikalak** 1. Kakanarruak. 3. paliza. 4. (Ald.) Bizkaiko udala. 5. Zerbait erretzean sortzen da. 6. (Ald.) Larregi. 7. Nik hari zerbait ind. leh. datiboa. 9. Turkiako hiriburua. 10. Errepikatuz gorotza. 15. Esnatu aurretik. 17. (Ald.) Udalerri euskaldunak.

## · HOROSKOPOA ·

**Aries** Oporrak hartzeko laneko materiala izurratzea ez da biderik onena.

**Taurus** Noiz behinka haginak garbitu, lagun barik geratuko zara eta.

**Gemini** Kontuz gozoekin. Kilo horiekin…

**Cancer** Sudurtzar horrekin okila dirudizu. Zaindu zaitez, katarro garaia da.

**Leo** Ez ezazu irabazten duzuna baino diru gehiago gastatu.

**Virgo** Txori gehiegi dituzu buruan; denak kantuan gainera.

**Libra** Lasai, motel, sasoirik ederrenean zaude, ez dizu ezetzik esango.

**Scorpio** Segi martxa horretan eta laster bastoiaren premia izango duzu.

**Sagitarius** Alfer hori! etxea eta umeak bion kontua dira, ez emaztearenak bakarrik.

**Capricorn** Udazkena izanda ere, udaberrian baino erakargarriago zaude.

**Aquarius** Eguzkiaren izpiekin etorriko da zorte ona; lastima beti lainotuta egotea.

**Piscis** Armiarmak etxean? erratza ez da bazterrean uzteko gauza.





Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE




Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik…

## · GEMA BENITOREN GOMENDIOA ·



**Egizu irribarre! Egizu irribarre beti, nahiz eta irribarre tristea izan; irribarre triste hori baino tristeagoa baita irribarre egiten ez jakitea bera.**

**Jendea urduri, negatibo ikusten du Gemak goizean goizetik Portaloian. Edozein gauzagatik haserretzen dira, arazoa besterik ez dute ikusten. "Jendeari zerbait falta zaio: nagusiak alboan inor ez dutelako, umeak presaka bizi direlako eta gazteak ez ditugula ulertzen esaten dutelako, denak ozpinduta. Bizitzari positiboki begiratu behar zaio, lasai hartu eta barre eta irribarre egiteko astia hartu".**

## · KOMIKIA ·




## · PROGRAMAZIOA ·

ATB

**31 Larunbata**
3.00 Everest 92. Programa berezia
5.00 Tertulixan
5.30 ATBketan

**1 Igandea**
8.00 Larrugorritan
8.30 Monterock
9.00 Mondragol

**2 Astelehena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8,8.30,9 Berriak
9.30 Mondra Sport
10.00 Asteko Zinea: Batman

**3 Asteartea**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8,8.30,9 Berriak
9.30 Larrugorritan
10.00 Asteko Zinea: Batman.

**4 Asteazkena**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8,8.30,9 Berriak
9.30 Pareak jokuan
10.00 Asteko Zinea: Batman.

**5 Osteguna**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8,8.30,9 Berriak
9.30 ATBketan
10.00 Asteko Zinea: Batman.

**6 Ostirala**
1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8,8.30,9 Berriak
9.30 Monterock
10.00 Asteko Zinea: Batman.

## · SOLUZIOAK ·

**GURUTZEGRAMA**
**Horizontalak** 1. EE. 3. Jokin. 8. Zaitegi. 10. Kanpo. 11. Eo. 12. Azkordin. 13. Iaio. 14. Ha. 15. Lar. 16. Meer. 18. Igualako.
**Bertikalak** 2. Ezaziak. 3. Jipoi. 4. Otoroma. 5. Ke. 6. Igeheg. 7. Nionari. 9. Ankara. 10. Ka. 15. Io. 17. Eu

**JEROGLIFIKOA**
Kalte handiak

Altzariak
Diseinua
Apainketa
MARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Elektroinjekzio Zerbitzua
LUCAS
ARRASATE KONPONKETAK
Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

NAROKI
Urrezko bitxiak
NAROKI
Opariak, Jostailuak, Liburuak, Paperdegia
Erdiko kale, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 47

# RENAULTEKIN ARGI ETA GARBI IKUS DEZAZUN



## DEBALDEKO BERRIKUSPENA

### Argi ibili segurtasunarekin!

**ARGIEN DOIKUNTZA**

Hurbilerako nahiz urrutirako argien azterketa eta doikuntza altuerari nahiz inklinazioari dagokionez.

**Segurtasunerako osagai lagungarriak**

Argi keinukariak (aurrekoak eta atzekoak), egoera-argiak, balaztargiak eta atzera-martxakoak, baita bateriak eta haizetako-garbigailuaren eskobatxoak ere.

DOHAINEKO BERRIKUSPENA ZURE RENAULT INSTALAZIOAN

URTEBETEKO GARANTIA KONPONKETETAN (PIEZATAN NAHIZ LANESKUAN)

Informazioa:

RENAULT

MECA, S.A.